

II. ERANSKINA

MERKATU OFIZIALETAN NEGOZIATZEN DIREN BALOREAK JAULKITZEN DITUZTEN AURREZKI KUTXEN EZ BESTE ERAKUNDEEN GOBERNU KORPORATIBOARI BURUZKO URTEKO TXOSTENA

JAULKITZAILEAREN IDENTIFIKAZIO DATUAK

ERREFERENTZIAKO EKITALDIAREN AMAIERAKO DATA 2014

IFK: F75076935

Sozietatearen izena:

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO

Sozietatearen helbidea:

**JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA PASEALEKUA, ZK.G.
ARRASATE
GIPUZKOA
20500
ESPAINIA**

MERKATU OFIZIALETAN NEGOZIATZEN DIREN BALOREAK JAULKITZEN DITUZTEN AURREZKI KUTXEN EZ BESTE ERAKUNDEEN GOBERNU KORPORATIBOARI BURUZKO URTEKO TXOSTENA

A JABETZAREN EGITURA

A.1. Esan nor diren erakundeko akziodun edo parte-hartzaile garrantzitsuenak, ekitaldiaren itxiera-datan:

Akziodunaren edo parte-hartzailearen izen soziala	Kapital sozialaren %-a
LAGUN-ARO, EPSV	14,86

A.2. Adieraz itzazu, hala egokituz gero, akziodun edo parte-hartzaile garrantzitsuenen artean egon litezkeen familia-, merkataritza-, kontratu- edo sozietate-arloko harremanak (erakundeak ezagutzen baditu), garrantzi txikikoak eta merkataritza-trafiko edo -igorpen arruntak sortutakoak salbu utzita:

Harremana dutenen izen sozialak	Harreman mota	Azalpen laburra

A.3. Adieraz itzazu, hala egokituz gero, akziodun edo parte-hartzaile garrantzitsuenen eta erakundearen artean egon litezkeen merkataritza-, kontratu- edo sozietate-arloko harremanak, garrantzi txikikoak eta merkataritza-trafiko edo -igorpen arruntak sortutakoak salbu utzita:

Harremana dutenen izen sozialak	Harreman mota	Azalpen laburra

A.4. Adierazi, hala egokitzuz gero, boto eskubidea erabiltzeko dauden mugak, bai eta kapitallean partaidetzak erosteko edo eskualdatzeko dauden mugak ere:

BAI EZ

Muga horien azalpena

KOOPERATIBEN LEGERIAN AGINDUTAKOAREN ARABERA, PERTSONA JURIDIKOA DEN BAZKIDE BATEK ERE EZIN DU KAPITALAREN % 20TIK GORAKO PARTAIDETZARIK ETA/EDO BOTO ESKUBIDERIK IZAN. OROBAT, PERTSONA FISIKOA DEN BAZKIDE BATEK ERE EZIN DU KAPITALAREN % 2,5ETIK GORAKO PARTAIDETZARIK ETA/EDO BOTO ESKUBIDERIK IZAN.

B BATZAR OROKORRA EDO PAREKO ORGANOA

B.1. Aipa itzazu Batzar Orokorraren edo pareko organoaren eraketarako zer quorum dauden, estatutuetan ezarritakoaren arabera. Esan ezazu zertan ez duen antzik Sozietate Anonimoen Legean (SALean) aurreikusitako minimoen erregimenarekin edo aplikatu behar zaion araudiarekin.

KOOPERATIBEN LEGERIAN EZARRITAKOAREKIN BAT ETORRIZ ETA HARTU BEHARREKO ERABAKIA EDOZEIN IZANIK ERE, BATZAR NAGUSIA LEHEN DEIALDIAN BALIO OSOZ ERATUTZAT JOKO DA, BALDIN ETA BAZKIDEEN ERDIAK BAINO GEHIAGO BERTAN EDO ORDEZKATUTA BADAUDE, ETA, BIGARREN DEIALDIAN, BALDIN ETA BAZKIDEEN % 5 EDO 100 BAZKIDE GUTXIENEZ BERTARATU BADIRA.

B.2. Azal ezazu zein den sozietate-erabakiak hartzeko erregimena. Esan ezazu zertan ez duen antzik EKLAN aurreikusitako erregimenarekin edo aplikatu behar zaion araudiarekin.

KOOPERATIBEN LEGERIA APLIKATUZ, BALIO OSOZ EMANDAKO BOTOEN ERDIA BAINO GEHIAGO BEHAR IZANGO DA ERABAKIAK ONARTZEKO. BAT EGITEAK, BANANTZEAK, OBLIGAZIOEN ETA BESTE BALORE BATZUEN JAULKIPENAK EDOTA ESTATUTUEN ALDAKETAK EGITEKO, BERTAN EDO ORDEZKATUTA DAUDEN BAZKIDEEN BOTOEN BI HERENAK BEHAR IZANGO DIRA GUTXIENEZ.

B.3. Labur itzazu txosten honek aipagai duen ekitaldian batzar orokorrek edo pareko organoek hartutako erabakiak eta erabaki horien alde emandako botoen ehunekoak.

EKITALDIAN, 2014ko APIRILAREN 5ekoO BATZAR NAGUSIAK HONAKO ERABAKI HAUEK HARTU ZITUEN, ETA HAUEK IZAN ZIREN ALDEKO BOTOEN EHUNEKOAK:

- HIRU BAZKIDE IZENDATZEA ZEGOKION BATZARRAREN AKTA ONESTEKO (AHO BATEZ).
- ERAKUNDEARI ETA HAREN TALDE BATERATUARI BURUZKO URTEKO KONTUAK ETA GESTIOA TXOSTENA ONESTEA (AHO BATEZ).
- KAPITAL SOZIALERAKO INTERESAK ORDAINTZEA (AHO BATEZ).
- EKITALDIKO SOBERAKIN GARBIAK BANATZEA: % 10 HEZIKETAKO ETA SUSTAPENENKO FONDORA, % 15 KOOPERATIBA ARTEKO FONDO SOZIALERA, % 25 KOOPERATIBA ITZULKINETARA ETA % 50 NAHITAEZKO ERRESERBA FONDORA (AHO BATEZ).
- HEZIKETAKO ETA SUSTAPENENKO FONDOTIK % 15 BERTAN BANATZEA, % 17 BANAKETA OROKORRERAKO UZTEA ETA % 68 MCC-REN KOOPERATIBA ERAKUNDEAK FINANTZATZEKO ETA HEZIKETAKO ETA KOOPERATIBA ARTEKO SUSTAPENENKO FONDORAKO EKARPENETARAKO ERABILTZEA (AHO BATEZ).

- BAZKIDE BERRIEK KAPITAL SOZIALARI EGIN BEHARREKO EKARPENAK ETA SARRERA KUOTAK ONESTEA (AHO BATEZ).
- 2014an KAPITAL SOZIALARI EGIN BEHARREKO EKARPENEN INTERESA 2015eko BATZAR NAGUSIAK ZEHAZTUKO DUELA FINKATZEA. DENA DEN, KONTSEILU ERREKTOREAK KONTURAKO ZENBATEKOAK ORDAINTEZKO ESKUMENA IZANGO DU (AHO BATEZ).
- BATZAR NAGUSIAREN ETA KONTSEILU ERREKTOREAREN ARAUDIAK ONARTZEA (AHO BATEZ).
- KONTU-HARTZAILEAK BERRITZEA (AHO BATEZ).

B.4. Adierazi entitateak zer helbide elektroniko duen eta nola iristen den gobernu korporatiboari buruzko informaziora.

ENTITATEAREN WEB ORRIALDEA WWW.LABORALKUTXA.COM DA, ETA, GOBERNU KORPORATIBOAREN EDUKIAN SARTZEKO, INFORMAZIO KORPORATIBOAN SAKATU BEHAR DA, ETA, HORREN BARRUAN, TXOSTEN/GOBERNU KORPORATIBOAN.

B.5. Adieraz ezazu erakundeak jaulkitako baloreen edukitzaileen sindikatuek, horrelakorik badago, bilerarik egin duten, txosten honek aipagai duen ekitaldian egindako bilerek zer xede izan duten eta zer erabaki nagusi hartu dituzten.

EZ DA ERATU ERAKUNDEAK JAULKITAKO BALOREEN EDUKITZAILEEN SINDIKATURIK.

C ENTITATEKO ADMINISTRAZIOAREN EGITURA

C.1. Administrazio-kontseilua edo -organoa

C.1.1. Esan ezazu zein den administrazio-organoko kontseilari edo kideen gehieneko eta gutxieneko kopurua, estatutuetan aurreikusitakoaren arabera:

Organoko kontseilarien/kideen gehieneko kopurua	15
Organoko kontseilarien/kideen gutxieneko kopurua	12

C.1.2. Bete ezazu administrazio-kontseiluko edo -organoko kideei eta haien izaerari buruzko taula hau:

ADMINISTRAZIO ORGANOKO KONTSEILARIAK/KIDEAK

Administrazio-organoko kontseilariaren/kidearen izena edo izen soziala	Ordezkarria	Azken izendapenaren eguna
TXOMIN GARCIA HERNANDEZ		2012-06-30
MARÍA BELÉN CORTABARRIA ACHA		2012-06-30
IÑAKI JOSU GOÑI GABILONDO		2012-06-30
CARMEN AMAYA CECIAGA EZCURRA		2012-06-30
FCO. JAVIER GORROÑO GOITIA ITURBE		2012-06-30
JAVIER OLEAGA MENDIARACH		2012-06-30
MARIA CARMEN URRUTIA URIBECHEBARRIA		2012-06-30
JOSE MARIA BALZATEGUI JULDAIN		2012-06-30
JOSE LUIS GARCIA GARCIA		2012-06-30
JOSE JAVIER SAENZ DE BURUAGA GABILONDO		2012-06-30
LUIS MARIA UGARTE AZPIRI		2012-06-30
ROBERTO RUIZ DE INFANTE AGUIRRE		2012-06-30
JESUS IGNACIO PEÑA GÓMEZ		2013-04-30
RAFAEL IDIGORAS ALBERDI		2013-09-30

C.1.3. Aipa itzazu, hala egokituz gero, erakundearen taldeko kide diren beste erakunde batzuetan administratzaile- edo zuzendari-karguak betetzen dituzten administrazio-kontseiluko edo -organoko kideak:

Administrazio-organoko kontseilariaren/kidearen izena edo izen soziala	Taldeko erakundearen izen soziala	Kargua
TXOMIN GARCIA HERNANDEZ	SEGUROS LAGUN ARO, SA	ADMINISTRAZIO KONTSEILUKO LEHENDAKARIA
TXOMIN GARCIA HERNANDEZ	SEGUROS LAGUN ARO VIDA, SA	ADMINISTRAZIO KONTSEILUKO LEHENDAKARIA

C.1.4. Bete ezazu hurrengo taula administrazio-kontseilua eta haren batzordeak osatzen dituzten kideen kopuruari buruzko informazioarekin, bai eta azken lau ekitaldietan izan duten bilakaerari buruzkoarekin ere:

	Kontseilari kopurua			
	2014ko ekitaldia Kopurua %	2013ko ekitaldia Kopurua %	2012ko ekitaldia Kopurua %	2011ko ekitaldia Kopurua %
Administrazio-kontseilua	3 % 21	3 % 20	4 % 27	4 % 33
Batzorde exekutiboa				
Ikuskaritza-batzordea	2 % 67	2 % 50	2 % 50	2 % 67
Izendapenen eta ordainsarien batzordea	0	0	0	0

C.1.5. Bete ezazu ekitaldian zehar sortutako administrazio-organoko kontseilari edo kideen ordainsari agregatuari buruzko taula hau:

Ordainketaren kontzeptua	Mila eurokotan	
	Banakakoa	Taldea
Ordainsari finkoa	315	
Ordainsari aldakorra	39	
Dietak	10	
Beste ordainsari batzuk		
Guztira:	364	

C.1.6. Identifika itzazu administrazio-organoko kontseilari edo kide ez diren Goi Zuzendaritzako kide exekutiboak, eta adieraz itzazu ekitaldian zehar horien alde sortutako ordainsari guztiak:

Izena edo izen soziala	Kargua
JULIO GALLASTEGUI ZUBIZARRETA	ZUZENDARI NAGUSIA
JOSU ARRAIZA MARTÍNEZ DE LAGRAN	ENPRESEN AREAKO ZUZENDARIA
XABIER EGUIBAR GAINZA	NEGOZIOA SUSTATZEKO AREAKO ZUZENDARIA
CARLOS OSES IRULEGUI	ZUZENDARI NAGUSI ONDOKOA ETA PARTIKULARREN AREA KOMERTZIALEKO ZUZENDARIA
NURIA AGUIRRE UNZUETA	GESTIO SOZIALAREN AREAKO ZUZENDARIA
JOSÉ ANTONIO UNANUE ETXEBERRIA	FINANTZEN AREAKO ZUZENDARIA
ROMÁN AGUIRRE BEITIA	ORDAINBIDEEN AREAKO ZUZENDARIA
ALFREDO ZABALETA BARREDO	ARRISKUEN AREAKO ZUZENDARIA
OSCAR EGUSKIZA SIERRASESUMAGA	ARRISKUEN GESTIO AREAKO ZUZENDARIA

Goi Zuzendaritzako kideezko ordainsari guztiak (mila eurokotan)

1.174

C.1.7. Esan ezazu batzordeko estatutuek edo araudiak administrazio-organoko kontseilari edo kideentzat agintaldi mugatua ezartzen duten ala ez:

BAI EZ

Gehienezko agintaldi kopurua	0
------------------------------	---

C.1.8. Adieraz ezazu administrazio-kontseiluari edo -organoari onesteko aurkezten zaizkion urteko banakako kontuak eta kontu bateratuak aurrez ziurtatuta dauden ala ez.

BAI EZ

Identifika itzazu, hala egokituz gero, erakundearen urteko banakako kontuak eta kontu bateratuak ziurtatu dituzten pertsonak, administrazio-kontseiluak edo -organoak onets ditzan:

Izena	Kargua

C.1.9. Azal itzazu, horrelakorik balego, administrazio-kontseiluak edo -organoak prestatutako banakako kontuak eta kontu bateratuak Batzar Nagusian edo horren pareko organoan salbuespenekin aurkeztea eragozteko ikuskapen-txostenean ezarritako mekanismoak.

KONTSEILU ERREKTOREAREN ARAUDIAK IKUSKARITZA BATZORDE BAT ARAUTZEN DU, ETA BERARI ESLEITZEN ZAIO INFORMAZIO FINANTZARIO ARAUTUA PRESTATU ETA AURKEZTEKO PROZESUA IKUSKATZEKO EGINKIZUNA. ILDO BERETIK, HAREN EGINKIZUNA DA BARNE KONTROLERAKO SISTEMEN ERAGINKORTASUNA IKUSTATZEA.

C.1.10. Administrazio-kontseiluko edo -organoko idazkariak kontseilari izaera du?

BAI EZ

C.1.11. Adieraz itzazu, horrelakorik balego, ikuskatzailearen, finantza-analisten, inbertsio-bankuen eta kalifikazio-agentzien independentzia babesteko ezarritako mekanismoak.

KONTSEILU ERREKTOREAREN ARAUDIAK IKUSKARITZA BATZORDEA XEDATZEN DU, ETA BERARI ESLEITZEN ZAIO KONTU IKUSKARITZEKIN EDO AUDITORETZA SOZIJETATEEKIN HARREMANAK LOTU ETA EUREN INDEPENDENTZIA ARRISKUAN JAR LEZAKETEN GAIEN INGURUKO INFORMAZIOA JASOTZEKO EGINKIZUNA. HALA, URTEAN BEHIN, INDEPENDENTE DIRELA IDATZIZ BERRESTEKO ESKATZEN ZAIE.

C.2. Administrazio-kontseiluko edo -organoko batzorde guztiak eta bertako kide guztiak:

C.2.1. Zerrenda itzazu administrazio-organook:

	Kide kopurua	Eginkizunak
IKUSKARITZA BATZORDEA	3	C.2.3 PUNTUAN ADIERAZITAKOAK

	Kide kopurua	Eginkizunak
IZENDAPENEN ETA ORDAINSARIEN BATZORDEA	5	C.2.3 PUNTUAN ADIERAZITAKOAK

	Kide kopurua	Eginkizunak
ARRISKUEN BATZORDEA	5	C.2.3 PUNTUAN ADIERAZITAKOAK

C.2.2. Esan ezazu zein diren administrazio-kontseiluko edo -organoko batzorde guztiak eta bertako kide guztiak:

BATZORDE EXEKUTIBOA EDO DELEGATUA

Izena	Kargua

IKUSKARITZA BATZORDEA

Izena	Kargua
MARIA CARMEN URRUTIA URIBECHEBARRIA	LEHENDAKARIA
MARIA BELÉN CORTABARRIA ACHA	KIDEA
IÑAKI JOSU GOÑI GABILONDO	KIDEA

IZENDAPENEN ETA ORDAINSARIEN BATZORDEA

Izena	Kargua
ROBERTO RUIZ DE INFANTE AGUIRRE	LEHENDAKARIA
JOSE LUIS GARCIA GARCIA	KIDEA
JOSE JAVIER SAENZ DE BURUAGA	KIDEA
FCO. JAVIER GORROÑO GOITIA ITURBE	KIDEA
TXOMIN GARCIA HERNANDEZ	KIDEA

ESTRATEGIAREN ETA INBERTSIOEN BATZORDEA

Izena	Kargua

ARRISKUEN BATZORDEA

Izena	Kargua
MARIA CARMEN URRUTIA URIBECHEBARRIA	LEHENDAKARIA
TXOMIN GARCIA HERNANDEZ	KIDEA
LUIS M ^a UGARTE AZPIRI	KIDEA
RAFAEL IDIGORAS ALBERDI	KIDEA
JESÚS IGNACIO PEÑA GOMEZ	KIDEA

C.2.3. Azaldu itzazu antolamendu- eta funtzionamendu-arauak eta administrazio-kontseiluko edo -organoko batzorde edo kide bakoitzak izendatuta dituen erantzukizunak. Hala egokituz gero, kontseilari delegatuaren ahalmenak deskribatu beharko dira.

IKUSKARITZA BATZORDEA

IKUSKARITZA BATZORDEAREN EGINKIZUN BEREZIAK ESTATUTUETAN (36 BEDERATZI ARTIKULUAN) JASOTAKOAK DIRA, HAU DA:

A) BATZAR NAGUSIAN ARGIBIDEAK EMATEA, BAZKIDEEK BEREN ESKUMENEKO GAJETAN PROPOSATZEN DITUZTEN ARLOEI BURUZ.

B) KANPOKO KONTU IKUSKATZAILEEN IZENDAPENA, LUZAPENA EDO KARGU UZTEA PROPOSATZEA KONTSEILU ERREKTOREARI, BATZAR NAGUSIAK ONESPENA EMAN DIEZAIEN.

C) BARNE IKUSKARITZAKO ZERBITZUAK GAINBEGIRATZEA.

D) SOZIJETATEAREN BARNE KONTROLERAKO SISTEMEN ETA INFORMAZIO FINANTZARIOAREN PROZESUA EZAGUTZEA.

E) KANPOKO IKUSKATZAILEEKIN HARREMANAK IZATEA, HORIEN INDEPENDENTZIA ARRISKUAN JAR DEZAKETEN GAIEN INGURUAN, KONTU IKUSKARITZAREN GARAPEN PROZESUARI LOTURIKO BESTE EDOZEIN GAIREN INGURUAN, ETA KONTU IKUSKARITZAREN LEGERIAN ETA

IKUSKARITZA ARAU TEKNIKOETAN AURREIKUSITAKO GAINERAKO JAKINARAZPENEN INGURUAN INFORMAZIOA JASOTZEKO.

F) URTEAN BEHIN, KONTU IKUSKARITZAREN TXOSTENA ARGITARATU AURRETIK, KONTU IKUSKATZAILEEN EDO IKUSKARITZA SOZIEATEEN INDEPENDENTZIARI BURUZKO IRIZPENA JASOKO DUEN TXOSTENA ARGITARATZEA. TXOSTEN HORRETAN, BETIERE, AURREKO ATALEAN AIPATURIKO ZERBITZU OSAGARRIEN PRESTAZIOARI BURUZKO IRITZIA JASO BEHARKO DA.

ERA BEREAN, KONTSEILU ERREKTOREAREN ARAUDIAREN 10.3 ARTIKULUAREN ARABERA, ORGANO HORREK JOKABIDE KODEA ETA GOBERNU KORPORATIBOAREN ARAUAK BETETZEN DIRELA GAINBEGIRATZEKO ESKUMENA DU.

ESTATUTU SOZIALEN ARABERA, IKUSKARITZA BATZORDEAK BEHAR ADINA BILERA EGINGO DITU, LEHENDAKARIAK EDO EDOZEIN KIDEK ESKATUZ GERO. KIDE BAKOITZAK BOTO BAT IZANGO DU, ERABAKIAK GEHIENGO SOILEZ HARTUKO DIRA ETA LEHENDAKARIAREN BOTOAK BERDINKETAK ERABAKITZEN DITU.

IZENDAPENEN ETA ORDAINSARIEN BATZORDEA

KONTSEILU ERREKTOREAREN ARAUDIAN (11.2. ART.) JASOTA DAUDE IZENDAPENEN ETA ORDAINSARIEN BATZORDEAREN ZEREGIN BEREZIAK. HONAKO HAUEK, ALEGIA:

- KONTSEILARIEN ETA FUNTSEZKO LANGILEEN EGOKITASUNARI BURUZKO ESKULIBURUAN ESLEITUTAKOAK.
- KONTSEILU ERREKTOREAN ORDEZKARITZARIK TXIKIENA DUEN SEXUARENTZAKO ORDEZKARITZA HELBURUA FINKATZEA ETA HELBURU HORRETARA IRISTEKO ORIENTABIDEAK LANTZEA.
- KONTSEILU ERREKTOREAN ORDAINSARIEN POLITIKA OROKORRA ETA ZUZENDARI ETA KONTSEILARIEN ORDAINSARIEN POLITIKA PROPOSATZEA
- ORDAINSARIEN POLITIKAK BETETZEN DIRELA ZAIKTZEA, ZUZENDARIEI APLIKATZEN ZAIZKIENAK ALDIAN BEHIN BERRIKUSTEA ETA POLITIKA HORIEK EGOKI BETETZEN DIRELA BERMATZEKO, URTEAN BEHIN TXOSTEN BAT EGINGO DELA ZIURTATZEA

ESTATUTU SOZIALEN ARABERA, IZENDAPENEN ETA ORDAINSARIEN BATZORDEAK BEHAR ADINA BILERA EGINGO DITU, LEHENDAKARIAK EDO EDOZEIN KIDEK ESKATUZ GERO. KIDE BAKOITZAK BOTO BAT IZANGO DU, ERABAKIAK GEHIENGO SOILEZ HARTUKO DIRA ETA LEHENDAKARIAREN BOTOAK BERDINKETAK ERABAKITZEN DITU.

ARRISKU BATZORDEA

KONTSEILU ERREKTOREAREN ARAUDIAN (11. BIS ART.) JASOTA DAUDE ARRISKUEN BATZORDEAREN ZEREGIN BEREZIAK. HONAKO HAUEK, ALEGIA:

- ENTITATEAREN ARRISKU-ESTRATEGIA GLOBALA ETA ARRISKUAREKIKO JOERA ERABAKITZEA, BAITA ENTITATEAK DITUEN EDO IZAN DITZAKEEN ARRISKUAK GESTIONATU, IKUSKATU ETA MURRIZTEKO POLITIKA ZEHATZAK ERE.
- KONTSEILU ERREKTOREARI ENTITATEAREN ARRISKU GARRANTZITSU GUZTIEN GESTIOAREN ETA IKUSKAPENAREN INGURUKO AHOLKUA EMATEA.

- KONTSEILU ERREKTOREARI ESTRES TEST ETA KAPITAL PLANGINTZAREN INGURUKO AHOLKUA EMATEA, ARRISKUEI DAGOKIENEZ.

- ARRISKUEN GESTIORAKO ETA BARNE ANTOLAKUNTZAREN ERAGINKORTASUNERAKO BALIABIDE EGOKIAK ESLEITZEN DIRELA ZAINTEA.

- KONTSEILU ERREKTORETIK ERAKUNDERA ETA ALDERANTZIZ ARRISKUEN INGURUKO INFORMAZIO KANAL ERAGINGARRIAK DAUDELA ZAINTEA.

- AKTIBOEN BALORAZIOA, KANPOKO KREDITU KALIFIKAZIOEN ERABILERA ETA ARRISKUEN INGURUKO BARNE EREDUAK GAINBEGIRATZEA.

ARAUDIAREN ARABERA, IZENDAPENEN ETA ORDAINSARIEN BATZORDEAK BEHAR ADINA BILERA EGINGO DITU, LEHENDAKARIAK EDO EDOZEIN KIDEK ESKATUZ GERO. KIDE BAKOITZAK BOTO BAT IZANGO DU, ERABAKIAK GEHIENGO SOILEZ HARTUKO DIRA ETA LEHENDAKARIAREN BOTOAK BERDINKETAK ERABAKITZEN DITU.

C.2.4. Adieraz ezazu ikuskaritza-batzordeak ekitaldian zehar egin dituen bileren kopurua:

Bilera kopurua	3
----------------	---

C.2.5. Izendapen-batzordea baldin badago, adieraz ezazu kide guztiak kanpoko administrazio-organoko kontseilari edo kide diren ala ez.

BAI EZ

D.- ERAGIKETA LOTUAK ETA TALDE BARRUKO ERAGIKETAK

D.1. Zerrenda itzazu zure taldeko entitatearen edo entitateen eta akziodunen, partaide kooperatibisten nahiz jabetza-eskubideen titularren edota entitatean pareko izaera duten beste edozeinen artean egindako eragiketak.

D.2. Zerrenda itzazu zure taldeko entitatearen edo entitateen eta administratzaileen nahiz administrazio-organoko kideen edo entitateko zuzendaritzako kideen artean egindako eragiketak.

D.3. Zerrenda itzazu talde barruan egindako eragiketak.

D.4. Esan ezazu zein mekanismo ezarri diren entitatearen edo haren taldearen eta administrazio-organoko kontseilari edo kideen edo zuzendarien artean egon litezkeen interes-gatazkak atzeman, zehaztu eta ebazteko.

LEGEAK AUKERA EMATEN DU KONTSEILU ERREKTOREAREN ETA BATZAR NAGUSIAREN ERABAKIAK AURKARATZEKO, BAZKIDE EDO HIRUGARREN BATEN EDO BATZUEN MESEDERAKO ETA CAJA LABORALEN INTERESEN KALTERAKO DIRENEAN. HORREZ GAIN, BEHEAN AIPATU DIREN ARAU BEREZIAK APLIKATUKO DIRA, SOR LITEZKEEN INTERES GATAZKETAN:

A) ERAGINDAKO BAZKIDEAK UKO EGIN BEHARKO DIO BATZAR NAGUSIAN BOTOA EMATEARI, BALDIN ETA BATZAR NAGUSIAREN BAIMENA BEHARREZKOA BADA KONTSEILU ERREKTOREKO EDOZEIN KIDEREKIN ETA KONTU IKUSKATZAILEEKIN EDO ZUZENDARIAREKIN EDO ODOL NAHIZ EZKONTZA AHAIDETASUNEZKO BIGARREN MAILARAINOKO SENIDEEKIN OBLIGAZIOAK HARTZEKO, BAZKIDE IZATEAK BEREZKOAK DITUEN HARREMANETARAKO IZAN EZEAN.

B) BEHERAGO AIPATUKO DITUGUN BALDINTZAK BETE BEHARKO DIRA, KONTSEILU ERREKTOREKO ETA ESTATUTUETAKO GAINERAKO SOZIJETATE ORGANOETAKO KIDEEN, ZUZENDARITZA NAGUSIAREN EDO HORIEN ODOL

NAHIZ EZKONTZA AHAIDETASUNEZKO BIGARREN MAILARAINOKO SENIDEEN ALDEKO KOOPERATIBIZATUTAKO ERAGIKETA EDO ZERBITZUEI BURUZ KONTSEILU ERREKTOREAN ERABAKIAK HARTZEKO. HONAKO BALDINTZA HAUEK BETE BEHAR DIRA:

- ERABAKIA EZKUTUKO BOTAZIO BIDEZ ONARTU BEHAR DA, GAI HORI GAI ZERRENDAN BEHAR BEZAIN ARGI ADIERAZI ONDOREN.

- ERABAKIA HARTZEKO, KONTSEILARI GUZTIEN BI HERENEN ALDEKO BOTOA BEHAR IZANGO DA, GUTXIENEZ. ERAGIKETAREN EDO ZERBITZUAREN ONURADUNA KONTSEILARIA EDO ARESTIAN AIPATUTAKO HAREN SENIDE BAT BALDIN BADA, INTERES GATAZKAN DAGOELA JOKO DA, ETA EZ DU BOTAZIOAN PARTE HARTZERIK IZANGO.

- EZKUTUKO BOTAZIOA EGIN ETA EMAITZA EZAGUTZERA EMAN ONDOREN, HARTUTAKO ERABAKI HORRI BURUZKO DESADOSTASUNAK EDO ZUHURTZIAK AKTAN AGERRARAZI AHAL IZANGO DIRA.

BALDINTZA HORIEK BETE BEHARKO DIRA, HALABER, CAJA LABORALEK BESTE ERAKUNDE BATZUEKIN HAINBAT OBLIGAZIO EDO ESKUBIDE ERATU, INDARGABETU, ALDATU, BERRITU EDO BALIOGABETU BEHAR DITUENEAN ERE, BALDIN ETA KARGUOK EDO HAIEN SENIDEAK ERAKUNDE HORIETAN NAGUSIAK, KONTSEILARIAK, ADMINISTRATZAILEAK, GOI ZUZENDARIAK, AHOLKULARIAK EDO OINARRIZKO KIDEAK (% 5eko EDO HORTIK GORAKO KAPITALEKO PARTAIDETZAREKIN) BADIRA.

KONTSEILARIAK IZENDATZEKO, EGOKITASUNARI BURUZKO ESKULIBURUA ERRESPECTATU BEHAR DA. HAREN ARABERA, EGOKITASUN HORI EGIAZTATZEKO EZINBESTEKO BALDINTZA DA KONTSEILARI GAIK AGIRI BAT SINATZEA, ESANEZ EZ DUELA INOLAKO GATAZKA JARRAITURIK EDO EGITURAZKO GATAZKARIK CAJA LABORALEN INTERESEKIN. ERA BEREAN, URTEAN BEHIN EGOERA HORI EGIAZTATZEN DA, BETIERE JAKINEZ KONTSEILARIAREN ARDURAPEAN DAGOELA CAJA LABORALI BEREHALA JAKINARAZTEA BERE EGOKITASUNEAN ERAGIN LEZAKEEN EDOZEIN EGOERA SORTUKO BALITZ, ETA BERA IZANGO DELA ERANTZULEA, BALDIN ETA BERANDU JAKINARAZTEAGATIK EDO EZ JAKINARAZTEAGATIK, ENTITATEARI INOLAKO KALTERIK ERAGINGO BALITZAI.

E. ARRISKUAK KONTROLATU ETA GESTIONATZEKO SISTEMAK

E.1. Azaldu ezazu zer irismen duen entitatearen Arriskua Gestionatzeko Sistemak.

ARRISKUAK GESTIONATZEKO SISTEMA ERA INTEGRALEAN EZARTZEN DA. ARRISKUEN AREAN ZENTRALIZATZEN DA OHIKO KREDITU ARRISKUA ONARTU, JARRAIPENA EGIN ETA BERRESKURATZEKO ARDURA, BAI ETA INTERES TASAREN, LIKIDETZAREN, MERKATUAREN ETA ERAGIKETEN ARRISKUAK NEURTU ETA KONTROLATZEKO ZEREGINA ERE. HILEAN BEHIN ARRISKU GUZTIEN (ERAGIKETEN ARRISKUARENA IZAN EZIK) JARRAIPENAREN BERRI EMATEN ZAIO AKTIBOEN ETA PASIBOEN BATZORDEARI, ETA HIRU HILEAN BEHIN ERAGIKETEN ARRISKUAREN JARRAIPENAREN BERRI EMATEN ZAIO ERAGIKETEN ARRISKUAREN BATZORDEARI.

ARRISKU GUZTIEN JARRAIPENA ERA ZENTRALIZATUAN EGITEN DA. HALA, AKTIBOEN ETA PASIBOEN BATZORDEA DA HORREN ARDURADUNA, ETA ERAGIKETEN ARRISKUAREN BATZORDEA, ERAGIKETEN ARRISKUAREN KASUAN. ALTXORTEGIAREN ETA KAPITALEN MERKATUAREN ARRISKUAK HORTIK KANPO GELDITZEN DIRA, BERARIAZ UZTEN BAITA ALTXORTEGIAREN DEPARTAMENTUAREN ARDURAPEAN. ERA BEREAN, KREDITU ARRISKUA ERE KANPOAN GELDITZEN DA, SUKURTSALEI DAGOKIEN ESKUMENETAN. GESTIO SISTEMEK ZEHATZ-MEHATZ ZEDARRITZEN DUTE ALTXORTEGIAREN DEPARTAMENDUARI DAGOKION ARRISKUEN GESTIOA, ETA JARDUERA HORRETAN ERRENTAGARRITASUN HELBURUAK ETA ARRISKUAK ONARTZEKO MUGAK EZARTZEN DITUZTE. ONDOREN, ARRISKUAREN KONTROL GLOBALAREN DEPARTAMENTUAK JARRAIPEN INDEPENDENTEA EGITEN DU. GESTIO SISTEMEK, GAINERA, SUKURTSAL SARERAKO BERANKORTASUN ETA HORNIKUNTZA HELBURUAK ZEHAZTU ETA HORRI DAGOKION JARRAIPENA EGITEN DUTE.

E.2. Adieraz ezazu zein diren Arriskuen Gestio Sistema prestatzeaz eta burutzeaz arduratzen diren entitateko organoak.

KONTSEILU ERREKTOREA: ENTITATEAREN ADMINISTRAZIO ORGANO GORENA DEN ALDETIK, ENTITATEAK BERE GAIN HARTZEN DITUEN ARRISKUAK ZAINTZEAREN ETA GAINBEGIRATZEAREN AZKEN ARDURADUNA DA. HORI DELA ETA, ARRISKUAK ZORROTZ KONTROLATZEKO ETA ARRISKUEN INGURUKO INFORMAZIOAREN DESKARGU SISTEMATIKOA BIDALTZEKO ESKATZEN DIO ZUZENDARITZA NAGUSIARI. ILDO BERETIK, CAJA LABORALEKO ARRISKUEN BATZORDE BATZUETAN PRESENTZIA ZUZENA DU. GAINERA, KONTSEILU ERREKTOREAREN BAITAN ARRISKUEN BATZORDEA ERATU DA 2014AREN BUKAERAN, KONTSEILU ERREKTOREARI ARRISKUEN JARRAIPENA EGITEKO ESPEZIALIZAZIO ETA SAKONTASUN HANDIAGOAK EMATEKO.

ZUZENDARITZA NAGUSIA: KONTSEILU ERREKTOREAK HAREN GAIN UTZI DUELAKO, ARRISKU POLITIKAK EZARTZEAZ ARDURATZEN DA ZUZENDARITZA NAGUSIA. HORRETARAKO, BATETIK, MERKATARITZA GESTIOKO FUNTZIOAK, ETA BESTETIK, ARRISKUEN INGURUKO ZEREGINAK (ONARTZEA, NEURTZEA ETA KONTROLATZEA) BEREIZTEA IRIZPIDETZAT HARTURIK ANTOLATU DU ZUZENDARITZAK ARRISKUEN GESTIOA.

BESTE ALDETIK, ENTITATEAK DITUEN ARRISKUEN EGOERA ETA BILAKAERA KONTSEILU ERREKTOREARI JAKINARAZTEKO, ZUZENDARITZA NAGUSIAK INFORMAZIOA IGORTZEN DIO HIRU HILEAN BEHIN. EZARRITA DAUDEN MUGAK ETA PROZEDURAK ZENBATERAINO BETETZEN DIREN NABARMENTZEN DITU, BATEZ ERE. LEHENAGO AIPATUTAKO ARRISKUEN BATZORDEA ERATU DENETIK, AURRERANTZEAN HORREXERI JAKINARAZIKO DIO.

AKTIBOEN ETA PASIBOEN BATZORDEA: ORGANO HORI ARDURATZEN DA EGITURAZKO INTERES TASAREN ARRISKUAN, LIKIDEZIAREN ARRISKUAN, MERKATUAREN ARRISKUETAN ETA KREDITUAREN ARRISKUAN KONTROLA EGITEAZ. ARRISKUAREN KONTROL GLOBALAREN DEPARTAMENDUAK BERARI JAKINARAZTEN DIO, HILEAN BEHIN, ARRISKUEN JARRAIPENARI BURUZKO INFORMAZIOA, ETA BATZORDE HORRETAN HARTZEN DIRA LIKIDEZIAREN, INTERES TASAREN ETA MERKATUAREN ARRISKUEN GESTIOARI LOTUTAKO ERABAKIRIK GARRANTZITSUENAK.

ERAGIKETEN ARRISKUEN BATZORDEA: ERAGIKETEN ARRISKUAREN ALORREKO KONTROL ORGANO DA. ARRISKUAREN KONTROL GLOBALAREN DEPARTAMENTUAK BERARI EMATEN DIO, HIRU HILABETEAN BEHIN, ERAGIKETEN ARRISKUAREN JARRAIPENARI BURUZKO INFORMAZIOA, ETA BATZORDE HORRETAN HARTZEN DIRA ARRISKU HORRI LOTUTAKO ERABAKIRIK GARRANTZITSUENAK.

ARRISKUEN AREA: PARTIKULARREN ETA ENPRESEN KREDITU ARRISKUA ONARTU, JARRAIPENA EGIN ETA BERRESKURATZEKO ARDURA ZENTRALIZATZEN DU ZENTZU ZABALEAN. ERA BEREAN, KREDITU ARRISKUAREN BARNE EREDUAK ERAIKI ETA MANTENTZEAZ ETA LIKIDEZIAREN, INTERES TASEN, MERKATUAREN ETA ERAGIKETEN ARRISKUAK NEURTU ETA KONTROLATZEAZ ERE ARDURATZEN DA. ARRISKUAK GESTIONATZEKO ERANTZUKIZUNA AREA BAKARRAREN ESKU UZTEARI ESKER, ARRISKU POLITIKAREN ORIENTABIDEEN TRANSMISIOAN SINERGIAK ETA ERAGIKETETAN ARINTASUNA SORTZEN DIRA, BAI ETA ARRISKUEN EZAGUPEN ETA KONTROL HANDIAGOA ERE.

ARRISKUEN KONTROL GLOBALAREN DEPARTAMENTUA: ARRISKUEN AREAREN MENPE DAGO. ARRISKU GUZTIEN IKUSPEGI GLOBALA ESKAINTZEN DU, DEPARTAMENTU BAKARREAN BILTZEN DELAKO ENTITATEAK DITUEN ARRISKU GUZTIEN NEURKETA ETA KONTROLA. AKTIBOEN ETA PASIBOEN BATZORDEARI EMATEN DIO INFORMAZIOA. DEPARTAMENTU HORREK PRESTATZEN DITU KREDITU ARRISKUA ONARTU ETA JARRAIPENA EGITEKO BARNE EREDUAK ETA, ILDO BERETIK, DEPARTAMENDU HORREK EGITEN DU INTERES TASEN, LIKIDEZIAREN, MERKATUAREN ETA ERAGIKETEN ARRISKUEN NEURKETA ETA KONTROLA.

ARRISKUEN GESTIO DEPARTAMENTUA: ARRISKUEN AREAREN MENPE DAGO, ETA BERA ARDURATZEN DA PARTIKULARREN ETA ENPRESEN ARRISKUA GESTIONATZEAZ, ENTITATEAREN ARRISKUEN POLITIKA OROKORRAREN ESPARRUAN.

JARRAIPENAREN ETA BERRESKURAPENEN DEPARTAMENTUA: ARRISKUEN AREAREN MENPE DAGO ETA ENPRESAK BERANDUTZAN SARTU BAINO LEHENAGO HAIEN ARRISKUEN JARRAIPENA EGITEAZ ARDURATZEN DA, BAI ETA ENTITATEKO TXIKIZKARI SAREKO BEZEROEN BERANDUTZAGATIKO INBERTSIO IRREGULARREKO EGOERAK BERRESKURATZEAZ ERE. ZENBATEKO BATETIK GORAKO KOBRAEZINEN ZEHAPENETAN ESKU HARTZEN DU, ORDEZKO BATZORDEAN ETA BATZORDE NAGUSIAN PARTE HARTUZ.

AHOLKULARITZA JURIDIKOKO DEPARTAMENTUA: ARRISKUEN AREAREN MENPE DAGO ETA ARRISKU ERAGIKETETAN DOKUMENTU JURIDIKOEN MAILAKO BABESA ESKAINTZEAZ, ENPRESA SAREAN AUZIBIDEA GESTIONATZEN ERE LAGUNTZEN DU.

ALTXORTEGIAREN DEPARTAMENTUA: INBERTSIOEN AREAREN MENPE DAGO ETA FINANTZA ENTITATEEN ETA ERRENTA FINKO PRIBATUAREN KREDITU ARRISKUA, MERKATU ARRISKUAK, EPE LABURREKO LIKIDEZIA ARRISKUA ETA APB-N (AKTIBO ETA PASIBOEN BATZORDEAN) HARTUTAKO ERABAKIEN ONDORIOZKO POSIZIOAK GESTIONATZEAZ ARDURATZEN DA.

ARAUTEGIA BETETZEKO DEPARTAMENTUA: ENTITATE BARRUAN ARAUDIA BETETZEARI LOTUTAKO ALDERDIAK KONTROLATZEAZ, BULTZATZEAZ ETA JARRAIPENA EGITEAZ ARDURATZEN DA. HORRETARAKO, ENTITATEKO AREAK ETA DEPARTAMENTUAK KOORDINATZEAN DITU.

SUKURTSAL SAREA: PARTIKULARREKIN NAHIZ ENPRESEKIN KREDITU ARRISKUA ONARTZEKO PROZESUAREN LEHEN FASEA DA. ESPARRU HORRETAN HAINBAT AHALMEN DITUZTE ESKUORDETUTA, BETI ERE ENTITATEAREN ARRISKU POLITIKAK ZEHAZTUTAKO SCORING MAILEN, ALERTEN ETA ESKUMENEN ESPARRUAN. ARRISKUAREN ONARPENAK TXIKIZKAKO SAREAREN AHALMENAK GAINDITUZ GERO, ERABAKIA ZUZENEAN ARRISKUEN AREAREN ESKU UZTEN DA.

BARNE IKUSKARITZA: ZIURTASUNERAKO ETA KONTSULTARAKO EGINKIZUN INDEPENDENTETZAT ETA OBJEKTIBOTZAT ERATU DA, ENTITATEAREN ERAGIKETEI BALIOA ETA HOBEKUNTZA ERANSTEKO. HELBURUAK BETETZEN LAGUNTZEN DU, IKUSPEGI SISTEMATIKO ETA DIZIPLINATUA EMANEZ, ARRISKUEN GESTIO, KONTROL ETA GOBERNU PROZESUEN ERAGINKORTASUNA EBALUATU ETA HOBETZEKO.

E.3. Azal itzazu negozio-helburuak lortzeko arrisku nagusiak.

PARTIKULARREKIKO ETA ENPRESEKIKO OHIKO NEGOZIOAREN KREDITU ARRISKUA (KONTZENTRAZIO ARRISKUA BARNE), EGITURAZKO INTERES TASAREN ARRISKUA, LIKIDEZIA ARRISKUA, ALTXORTEGIAREN ETA KAPITAL MERKATUAREN ARRISKUAK (AURKAKO ALDERDI, HERRIALDE, KONTZENTRAZIO ETA MERKATU ARRISKUAK), ERAGIKETA ARRISKUAK, IZEN ONAREN ARRISKUAK ETA NEGOZIO ARRISKUAK.

E.4. Esan ezazu erakundeak arriskuarekiko tolerantzia-mailarik ote duen.

ENTITATEAK ARRISKUAREKIKO TOLERANTZIA MAILAK DITU. IRIZPIDE DESBERDINAK ERABILTZEN DIRA ARRISKU MOTAREN ARABERA.

- KREDITU ARRISKUA: ARRISKUAREKIKO TOLERANTZIA MAILA ZEHAZTEKO, EZ ORDAINTZEAK IZATEKO AUKERARI LOTUTAKO RATING/SCORING MAILAK EZ EZIK, ALERTEN ETA LEHIEN ARTEKO HARREMANAK ERE HARTZEN DIRA KONTUAN. HORIETAN GUZTIETAN OINARRITUTA, UNEAN-UNEAN IZAN DEZAKEEN ARRISKU MAILA MONITORIZATZEN DU ENTITATEAK.

- INTERES TASAREN ARRISKUA: ARRISKUAREN TOLERANTZIA MAILA ZEHAZTEKO, ENTITATEAK IZAN DITZAKEEN GALEREN GEHIENENKO ARRISKU MAILA HARTZEN DA KONTUAN, BAI MARJINAN, BAI BALIO EKONOMIKOAN.
- LIKIDEZIA ARRISKUA: ARRISKUAREN TOLERANTZIA MAILA ZEHAZTEKO, LIKIDEZIA ONARGARRIAREN GUTXIENENKO MAILAK HARTZEN DIRA KONTUAN.
- ALTXORTEGIAREN ETA KAPITAL MERKATUAREN ARRISKUAK: ARRISKUAREN TOLERANTZIA MAILA ZEHAZTEKO, HERRIALDEAREN, KONTRAKO ALDEAREN, KONTZENTRAZIOAREN ETA MERKATUAREN ARRISKUETAN ONAR DAITEKEEN GEHIENENKO ESPOSIZIOA HARTZEN DA KONTUAN. GEHIENENKO ESPOSIZIO NOMINALAREN ETA ALDAKORRAREN ARABERA ZEHAZTEN DIRA MUGAK.

E.5. Adieraz ezazu zer arrisku gauzatu diren ekitaldian.

INTERES TASAREN ARRISKUARI DAGOKIONEZ, INOIZ EZ DA GAINDITU KONTSEILU ERREKTOREAK EZARRITA DUEN ETA APB-K KONTROLATZEN DUEN MUGA.

MERKATU ARRISKUETAN, SOBERAKOAK GERTATZEZKOAK DIRA, HAU DA, MUGAK MURRIZTEAK ERAGINDAKOAK ETA EZ POSIZIOA HANDITZEAREN ONDORIOZKOAK. KASU HORIETAN, KONTROL SISTEMEK EGOKI FUNTZIONATU DUTE. ABP-K SOBERAKO HORIEN BERRI IZAN DU, ETA POSIZIOARI EUTSI ALA EZ ERABAKI DU.

LIKIDEZIA ARRISKUARI DAGOKIONEZ, ENTITATEAREN LIKIDEZIAREN JARRAIPEN SISTEMATIKOARI, AURREIKUSPENEKIKO DESBIDERATZEEN AZTERKETARI ETA ALTXORTEGIAREN HILEKO PLANEI ESKER, DENBORA NAHIKOZ AURREIKUS DAITEZKE EPE LABURRERA EGON LITEZKEEN KONTRAKO INPAKTUAK, ETA BEHAR DIREN NEURRI ZUZENTZAILEAK GARAIZ EGITEKO AUKERA DAGO. LIKIDEZIA RATIOEK MAILA BIKAINAK DITUZTE, BAITA LCR-K ERE. GAINERA, LIKIDEZIAREN INGURUKO GORABEHERETARAKO PLANA SORTU DU ENTITATEAK, LIKIDEZIA LARRIALDIETARAKO ESTRATEGIAK FINKATZEKO.

KREDITU ARRISKUARI ETA PARTIKULARREN ETA ENPRESEN SEGMENTUETAKO ERAGIKETEI GAGOZKIOLA, KREDITATU BATEKIKO ARRISKUAK ESTAMENTU BATEKO ESKUDANTZIAK GAINDITZEN DITUENEAN, GORAGOKO ESKUDANTZIAK DITUEN HURRENGO ESTAMENTURA BIDERATZEN DA IRIZPENA. FINANTZA ERAKUNDEEKIKO ETA KORPORAZIO HANDIEKIKO ERAGIKETETAN, EZ DA SOBERAKORIK SORTU URTEAN ZEHAR.

ERAGIKETA ARRISKUAN, BERRIZ, ENTITATEAREN JARDUERAREN ONDORIOZ NAHITAEZ SORTZEN DIREN GALERAK TXIKITU EGITEN DIRA, ATAL KUALITATIBOAN EZARRITA DAUDEN KONTOLEI ESKER.

IZEN ONAREN ARRISKUARI DAGOKIONEZ, BEZEROEKIKO NEGOZIOAN IZANDAKO EGOERA BATZUEK PUBLIZITATE NEGATIBOA ERAGIN DUTE ETA HORIEK GESTIONATZEN ARI DIRA. HALA, HORNIKUNTZAK EGIN DIRA, ETORKIZUNEAN EGON LITEZKEEN BEHARRIZANAK AURREIKUSITA.

E.6. Azaldu zer plan dauden Entitatearen arrisku nagusiei erantzuteko eta horiek ikuskatzeko.

BARNE IKUSKARITZAK ZEHAZTEN DU ENTITATEAREN ARRISKUEN BARNE GAINBEGIRATZEA. IZAN ERE, ARRISKUEN GESTIO ETA KONTROL PROZESUEN ERAGINKORTASUNA EBALUATU ETA HOBETZEA DA HAREN ZEREGINA.

F.- ARRISKUAK KONTROLATU ETA GESTIONATZEKO BARNE SISTEMAK, INFORMAZIO FINANTZARIOA EMATEKO PROZESUARI DAGOKIONEZ

Azaldu itzazu Arriskuak Kontrolatzeko eta Gestionatzeko Barne Sistemak osatzen dituzten mekanismoak, informazio finantzariora emateko prozesuari (IFBKS) dagokionez

F.1 Entitatearen kontrolaren arloa

F.1.1. Zer organo eta/edo funtzio arduratzen dira IFBKSa (i) egokia eta eraginkorra izateaz, (ii) ezartzeaz eta (iii) gainbegiratzeaz?

MERKATUETAN ENTITATEARI NAHIZ TALDEARI BURUZ ARGITARATUTAKO INFORMAZIO FINANTZARIOA FIDAGARRIA ETA EGOKIA IZANGO DELA ZIURTATZEKO, BARNE KONTROLEKO MEKANISMOAK EZARRITA DITU CAJA LABORALEK. HALERE, CAJA LABORAL COOPERATIVA DE CRÉDITOS ETA IPAR KUTXA RURAL SOCIEDAD COOPERATIVA DE CRÉDITOS BAT EGINDA SORTU DUTEN ENTITATE BERRIARI EGOKITUTAKO INFORMAZIO FINANTZARIOARI BURUZKO BARNE KONTROLEKO SISTEMA BERRIAK (AURRERANTZEAN IFBKS) INDARTU EGIN DU PROZESU HORI.

CAJA LABORALEN KODE ETIKOAREN ETA JARDUNBIDE PROFESIONALAREN KODEAREN 3.6. ATALEAN ('INFORMAZIOAREN FIDAGARRITASUNA'), IFBKS-AZ ARDURATUKO DIREN GOBERNU ORGANOA ETA HORIETAKO BAKOITZAK DUEN EGINKIZUNAK ZEHAZTEN DIRA:

*"CAJA LABORALEKO **KONTSEILU ERREKTOREA** ARDURATZEN DA IFBKS EGOKIA ETA ERAGINKORRA EZARRI, MANTENDU ETA ZIURTATZEAZ, ETA MERKATUAN ENTITATEARI NAHIZ TALDEARI BURUZ ARGITARATZEN DEN INFORMAZIO FINANTZARIOA OSOA, FIDAGARRIA ETA EGOKIA IZANGO DELA KONTROLATU ETA BERMATZEAZ.*

*"**ZUZENDARITZA KONTSEILUAREN ETA BARNE IKUSKARITZAKO DEPARTAMENDUAREN** ARDURA DA MERKATURA HELARAZITAKO INFORMAZIO FINANTZARIOAREN FIDAGARRITASUNA UNEORO BERMATZEKO BEHARREZKOAK DIREN KONTROL PROZEDURA ERAGINKORRAK DISEINATzea ETA EZARTzea. HORRETARAKO, BEHARREZKO GIZA BALIABIDEEZ ETA BALIABIDE MATERIALEZ HORNITUKO DU ENTITATEA ETA INFORMAZIO FINANTZARIOA PRESTATZEN DUTEN PERTSONEI EGINKIZUN HORI BETETZEKO TREBAKUNTZA NAHIKOA ESKAINIKO DIE.*

IKUSKARITZA BATZORDEAREN EGINKIZUNA DA IFBKS-AK ONDO FUNTZIONATZEN DUELA GAINBEGIRATzea, INFORMAZIO FINANTZARIO ARAUTUA PRESTATU ETA AURKEZTEKO PROZESUAN ZEHAR. BEREZIKI, LEGEZKO ERREKERIMENDUAK ETA ORO HAR ONARTUTAKO KONTABILITATE PRINTZPIOAK ZUZEN ERABILTZEN DIRELA IKUSKATZEN DU. ZEREGIN HORRETAN BARNE IKUSKARITZAKO DEPARTAMENTUAREN LAGUNTZA DU. DEPARTAMENTU HORREK ARRISKUAK GESTIONATU ETA KONTROLATZEKO SISTEMAK –HORIEN ARTEAN IFBKS– ZUZEN DISEINATU ETA EZARRITA DAUDELA ETA BEHAR BEZALA ETA EFIZIENTZIAZ FUNTZIONATZEN DUTELA GAINBEGIRATU ETA HORREN BERRI EMATEN DIO IKUSKARITZA BATZORDEARI.

AZKENIK, FINANTZEN AREAKO ZUZENDARITZAREN MENDEKO **GESTIOAREN PLANGINTZA ETA KONTROL DEPARTAMENTUAK** ARRISKUAK GESTIONATU ETA KONTROLATZEKO SISTEMAK DISEINATZEN ETA EZARTZEN LAGUNTZEN DU, BATEZ ERE MERKATUETARA IGORTZEN DEN FINANTZA INFORMAZIOA PRESTATU, AURKEZTU ETA OSATZEKO PROZESUARI DAGOKIONEZ.

F.1.2. Badaude elementu hauek, batez ere informazio finantzarioa sortzeko prozesuari dagokionez?

- **Honako hauez arduratzen diren departamentu eta/edo mekanismoak: (i) antolamendu-egitura diseinatu eta gainbegiratzeaz, (ii) erantzukizun- eta aginte-ildoak argi eta garbi zehazteaz, lanak eta zereginak behar bezala banatuz, eta (iii) Entitatean horiek egoki hedatzeko behar adina prozedura izateaz.**

ANTOLAMENDU EGITURA DISEINATU ETA AZTERTZEA ANTOLAMENDU DEPARTAMENTUARI DAGOKIO, BAINA BAITA LAN HORRETARAKO AREA BAKOITZAK DITUEN BALIABIDE PREMIAK AZTERTZEA ETA BERRIKUSTEA ERE. AZTERKETA HORI ANTOLAMENDU EGITURA EGOKITZEKO PREMIA DAGOENEAN EGITEN DA, ZERBITZU ZENTRALETAKO AREA ETA DEPARTAMENTUETAN, ETA, ZENBAT LANGILE BEHAR DIREN ERABAKITZEKO EZ EZIK, UNITATE BAKOITZAREN ANTOLAMENDU EGITURA BALIDATZEKO ERE EGITEN DA.

ERA BEREAN, SUKURTSAL SARE KOMERTZIALEAN, SUKURTSAL BAKOITZAREN LAN ZAMA NEURTZEN DA, HILEAN BEHIN, BERARIAZ DISEINATUTAKO APLIKAZIO INFORMATIKO BAT ERABILIZ. INFORMAZIO HORI ZUZENDARITZA NAGUSIARI, GESTIO SOZIALEKO ZUZENDARITZARI (GIZA BALIABIDEAK) ETA SARE KOMERTZIALEKO ZUZENDARITZARI HELARAZTEN ZAIE, BALIABIDEETAN EGIN BEHARREKO DOIKUNTZAK EGIN AHAL IZATEKO.

BESTALDE, ANTOLAMENDU DEPARTAMENTUA ARDURATZEN DA JARDUKETA ARLO BAKOITZEKO ERANTZUKIZUN ETA AGINTE ILDOAK ZEHAZTEAZ. JARDUKETA ARLO BAKOITZEAN EGINGO DIREN ZEREGIN ETA LANAK ERE DEPARTAMENTU HORREK ZEHAZTUKO DITU, ETA AREA BAKOITZAREN AGIRIAN ARGITARATU. GAUR EGUN, ANTOLAMENDUKO ESKULIBURUA, ERAKUNDEAN BETETZEN DIREN EGINKIZUN GUZTIETARAKO AGIRI BAKARRA, PRESTATZEKO LANA OSO AURRERATUTA DAGO. 2015EKO BIGARREN SEIHILEKOAN AMAITUKO DELA AURREIKUSTEN DA.

ANTOLAMENDU EGITURA ETENGABE BERRIKUSTEKO PROZESUAREN OSTEAN ATONDU ZEN CAJA LABORALEN ORGANIGRAMA INTRANETEAN DAGO ARGITARATUTA, LANGILEEN ESKURA.

- **Jokabide-kodea, onespren-organoa, hedapen- eta instrukzio-maila, sartutako printzipio eta balioak (eragiketa-erregistroari eta informazio finantzarioaren prestakuntzari buruzko berariazko aipamenik dagoen), ez-betetzeak aztertzeako organoa eta ekintza zuzentzaileak eta zigorrak proposatzekoa.**

ENTITATEAK KODE ETIKOAREN ETA JARDUNBIDE PROFESIONALAREN KODEA DU. HORREN AZKEN EGUNERATZEA 2012KO AZAROAN ONARTU ZUEN KONTSEILU ERREKTOREAK.

KODE ETIKOAK ETA JARDUNBIDE PROFESIONALAREN KODEAK, 3.6. ATALEAN, INFORMAZIO FINANTZARIOAREN FIDAGARRITASUNARI BURUZ KONTUAN HARTZEKO ALDERDIAK JASOTZEN DITU. HORIEN ARTEAN NABARMENTZEKOAK DIRA:

- *“CAJA LABORALEK BERE FINANTZA EGOEREI ETA HORIETAN INPAKTU NABARMENA IZAN LEZAKETEN GERTAKIZUNEI BURUZKO INFORMAZIO FINANTZARIO FIDAGARRIA, ZORROTZA, OSOA ETA EGOKIA EMAN BEHAR DU.*
- *PRESTATUTAKO INFORMAZIO FINANTZARIOA INDARREAN DAUDEN PRINTZPIO ETA ARAUEN ARABERA PRESTATZEN DELA ZIURTATZEKO, TALDEAN EZARTZEN DIREN PROZEDUREZ GAIN, LAN BAZKIDE ETA LANGILE GUZTIEK INFORMAZIOA ERREGISTRATZEKO ETA TRATATZEKO LANAK ARDURAZ BETETZEKO BETEBEHARRA DUTE, ETA HORIXE DA TALDEAREN INFORMAZIO FINANTZARIO PUBLIKOA PRESTATZEKO PROZESUAREN OINARRIA.*
- *ARDURA HORI GAUZATZEA ARE GARRANTZITSUAGOA DA TALDEAREN FINANTZETAKO EGOERA ORRIAK PRESTATZEKO DATU ETA TXOSTENAK EGITEKO UNEAN, NAHITAEZKOA BAITA EGOKI ERREGISTRATU ETA*

INTERPRETATZEA, KONTABILITATEKO SALDO, TRANSAKZIO EDO KONTINGENTZIA BAKOITZARI DAGOZKION BALORAZIO IRIZPIDEAK EGOKI EZARRIKO DIRELA BERMATU AHAL IZATEKO”.

KODE ETIKOAREN ETA JARDUNBIDE PROFESIONALAREN KODEAREN ARABERA DERRIGORTASUN HORI DUTEN PERTSONA GUZTIEI JAKINARAZI ZAIE KODE HORREN EDUKIA ETA HEDADURA, 2012KO ABENDUAREN 28KO ETA 2012KO AZAROAREN 29KO INFORMAZIO OHARREN BIDEZ, ETA ENTITATEKO INTRANETEAN ESKURAGARRI JARRIZ.

ENTITATEAREN KONTSEILU ERREKTOREA (IKUSKARITZA BATZORDEAREN LAGUNTZAZ) ETA KODE ETIKOAREN ETA JARDUNBIDE PROFESIONALAREN KODEAREN JARRAIPENA EGITEKO ORGANO DEN ETIKA BATZORDEA DIRA JARDUERA GUZTIAK BIDE HORRETAN JARTZEAREN, EZ-BETETZEAK GAITZESTEAREN ETA, BEHAR DENEAN, NEURRI ZUZENTZAILEAK HARTZEAREN ERANTZULEAK.

BESTE ALDE BATETIK, JOKABIDEEN BARNE ARAUTEGIA ERE BADU CAJA LABORALEK, BALORE MERKATUAREN ALORREAN. ENTITATEKO KONTSEILU ERREKTOREKO KIDEEI, TALDEKO SOZIEATEETAKO ADMINISTRAZIO KONTSEILUETAKOEI ETA BATEZ ERE KUTXAK BALORE MERKATUAREN ALORREAN EGITEN DITUEN JARDUEREKIN ETA EMATEN DITUEN ZERBITZUEKIN LOTURA DUTEN PERTSONEI (ZUZENDARIAK IZAN ALA EZ) APLIKATZEKOAK DIRA, BALDIN ETA SARRITAN EDO OHITURAZ KUTXARI BURUZKO INFORMAZIOA ERABILTZEN BADUTE.

- **Salaketen kanala, Ikuskaritza Batzordea finantzen eta kontabilitatearen alorreko irregulartasunen, jardunbide-kodean gertatzen diren ez-betetzeen eta erakundeko jarduera irregularren jakinaren gainean jartzeko, eta konfidentziala den ala ez adierazteko.**

GAUR EGUN, CAJA LABORALEK SALAKETEN KANALA EZARRI DU ETA TALDEA OSATZEN DUTEN SOZIEATEETAKO BAZKIDE, LANGILE ETA ADMINISTRATZAILEEK ERABIL DEZAKETE. 2012KO OTSAILAREN 28AN KANAL HORI SORTU ZENEAN, SOZIEATE OSOARI JAKINARAZI ZITZAION INFORMAZIO OHAR BATEN BIDEZ ETA INTRANETEN TXERTATUZ. HAREN FUNTZIONAMENDUAREN ARAUBIDEA ENTITATEKO KODE ETIKOAN ETA JARDUNBIDE PROFESIONALAREN KODEAN JASOTA DAGO.

KANAL HORREN BIDEZ, ETA BARNE IKUSKARITZAKO ZUZENDARIA TARTEKO, KODE ETIKOA ETA JARDUNBIDE PROFESIONALAREN KODEA URRATUZ GERO, JARRAIPEN BATZORDEARI JAKINARAZTEN ZAIO INDARREAN DAGOEN LEGERIAREN EDOTA BARNE ARAUDIAREN AURKAKO ERAGIKETAK EDO JARDUNBIDEAK ANTZEMAN DIRELA. ILDO BERETIK, GARRANTZI HANDIA IZAN LEZAKETEN IRREGULARTASUNEN BERRI EMATEN ZAIO, BATEZ ERE FINANTZARI ETA KONTABILITATEARI LOTUTA.

ENTITATEAREN KODE ETIKOAN ETA JARDUNBIDE PROFESIONALAREN KODEAN, KANALAREN HEDADURA, EDUKIA ETA ERABILERA DAGO JASOTA, ETA SALAKETAREN KONFIDENTZIALTASUNA BERMATZEN DU. SALAKETA BARNE IKUSKARITZAKO AREAREN ZUZENDARIARI ZUZENDUKO ZAIO, BEHARREZKO GESTIOA ETA TRATAMENDUA EMAN DIEZAZKION.

ERA OSAGARRIAN, IKUSKARITZA BATZORDEAK BARNE IKUSKARITZAKO DEPARTAMENTUAK EGINDAKO LANEI ETA ENTITATEKO JARDUERA IRREGULARREKIN ZERIKUSIA DUTEN LANEI BURUZKO INFORMAZIOA JASOKO DU, ALDIAN BEHIN.

- **Informazio finantzarioa prestatu eta berrikusteko eta IFBKSa ebaluatzeko lanean aritzen diren langileentzako aldian aldiko prestakuntza- eta eguneratze-programak, gutxienez kontabilitate-arauak, auditoretza, barne-kontrola eta arriskuen kontrola jasoko dutenak.**

ENTITATEAK BATZORDE BETEARAZLEAK ONETSITAKO PRESTAKUNTZA POLITIKA OROKOR BAT DU. INFORMAZIO FINANTZARIOA SORTU, PRESTATU ETA BERRIKUSTEN ZUZENEAN DIHARDUTEN LANGILEEK BEHAR ADINAKO TREBAKUNTZA ETA GAITASUN PROFESIONALA DUTELA BERMATZEA DA POLITIKA HORREN HELBURUA. HORRELA, BADA, LANGILE HORIEK INDARREKO ARAU BETEKIZUNEN BERRI JASOTZEN DUTE, ETENGABE.

ENTITATEKO PRESTAKUNTZA SAILAK PRESTAKUNTZA JARDUERA ETA PROGRAMAK GESTIONATZEN DITU, ETA EGINDAKO IKASTARO GUZTIEN ETA HAIEN EZAUGARRIEN ERREGISTRO EGUNERATUA MANTENTZEN DU: KANPOKO EDO BARRUKO PRESTAKUNTZA DEN, ZENBAT PARTAIDE IZAN DIREN, ZENBAT ORDU IRAUN DUEN, PRESTAKUNTZAREN EBALUAZIOAREN EMAITZAK, ETAB. ONDOREN, 2014KO EKITALDIAN IFBKSA-AREN ESPARRUAN EMANDAKO IKASTARO BATZUK ZERRENDATUKO DIRA:

AREA EDO DEPARTAMENTUA	IKASTAROA	LANGILE KOPURUA	PRESTAKUNTZA ORDUAK	PRESTAKUNTZA MOTA
Finantzen Area Arriskuen Area Barne-ikuskaritza	SIRBE ikastaroa:	18	14	Kanpoko
Finantzen Area Arriskuen Area Barne-ikuskaritza	Kaudimen Koefizientearen optimizazio-irizpide berriak	19	7	Kanpoko
Barne-ikuskaritza	Ikuskaritza eta peritutz informatikoa	1	150	Kanpoko
Arriskuen Area	Balantze-baterakuntza	21	12	Kanpoko
Finantzen Area Arriskuen Area	Araudi-jardunaldia: Kapital-errekerimenduak (CRD IV) eta Banku Batasuna (MUS/MUR)	11	4	Barrukoa
Arriskuen Area	MATLAB finantzetan: balorazioa eta arriskuak	1	40	Kanpoko
Arriskuen Area	ALM eta interes-tasen estaldurak	3	16	Kanpoko

F.2. Informazio finantzarioaren arriskuak ebaluatzea

F.2.1. Zein dira arriskuak identifikatzeko prozesuaren ezaugarri nagusiak, hutsegitearena eta iruzurrarena barne, alderdi hauetan:

- **Prozesu hori badagoen eta dokumentatuta dagoen.**

ENTITATEAREN ZUZENDARITZAK "COMMITTEE OF SPONSORING ORGANIZATIONS OF THE TREADWAY COMMISSION" (AURRERANTZEAN "COSO") ERAKUNDEAK EZARRITAKO NAZIOARTEKO ESTANDARREN ARABERA GARATU

DU IFBKS-A: ESTANDAR HORIETAN BOST OSAGAI FINKATZEN DIRA, BARNE KONTROLEKO SISTEMEN ERAGINKORTASUNA ETA EFIZIENTZIA OINARRITZEKO:

- JARDUERA HORIEN GUZTIEN JARRAIPENA EGITEKO KONTROL GIRO EGOKIA SORTZEA.
- ENTITATEAK BERE INFORMAZIO FINANTZARIOA PRESTATZEAN IZAN LITZAKEEN ARRISKU GUZTIAK EBALUATZEA.
- ARRISKURIK LARRIENAK ARINTZEKO BEHARREZKO KONTROLAK DISEINATZEA.
- SISTEMAREN AHULTASUNAK EDO EFIZIENTZIARIK EZAK ANTZEMAN ETA EZAGUTARAZTEKO INFORMAZIO ZIRKUITU EGOKIAK EZARTZEA.
- KONTROL HORIEK MONITORIZATZEA, HAIEN ERAGINKORTASUNA ETA DENBORAN ZEHAR BALIAGARRIAK IZANGO DIRELA BERMATZEKO.

HORRELA, FINANTZETAKO EGOERA ORRIETAN ERAGIN NABARMENA IZAN LEZAKETEN ARRISKUAK ANTZEMATEKO PROZESUAK ARRETA BEREZIA JARTZEN DU INFORMAZIO FINANTZARIOAREN SORRERARI ETA ARRISKU HORIEK GAUZATZEN DIREN FINANTZETAKO EGOERA ORRIETAKO AREA EDO EPIGRAFEEI LOTUTAKO GESTIO PROZESU KRITIKOETAN. PROZESUAK ETA AREAK AZTERTZEAN KONTUAN HARTZEN DIRA FAKTORE KUANTITATIBOAK (SALDOA ETA GRANULARITATEA) ETA KUALITATIBOAK (PROZESUEN AUTOMATIZAZIO MAILA, ERAGIKETEN ESTANDARIZAZIOA, KONTABILITATE KONPLEXUTASUNAREN MAILA, AURREKO EKITALDIAREKIKO ALDAKETAK, ANTZEMANDAKO KONTROL AHULTASUNAK ETA ABAR).

INFORMAZIO FINANTZARIOAREN BARNE KONTROLEKO ARRISKUAK ANTZEMAN ETA EBALUATZEKO PROZESUA DINAMIKOA DA, ETENGABEKO EBOLUZIOA DU DENBORAN ZEHAR ETA UNEAN-UNEAN ISLATZEN DITU TALDEAREN NEGOZIOAREN EGOERA, HORRI ERAGITEN DIOTEN ARRISKUAK ETA HORIEK ARINTZEKO KONTROLAK.

- **Prozesuak informazio finantzarioaren helburu guztiak (existitzea eta gertatzea; integritatea; balioespina; aurkezpena, banakapena eta alderagarritasuna; eta eskubideak eta betebeharrak) betetzen dituen, eguneratzen den eta zer maiztasunekin eguneratzen den.**

CNMV-K ERAKUNDE KOTIZATUEN INFORMAZIO FINANTZARIOARI BURUZ PLAZARATUTAKO BARNE KONTROLEKO AGIRIAK JASOTZEN DITUEN INFORMAZIO FINANTZARIOAREN HELBURU GUZTIAK KONTUTAN HARTUTA DISEINATU DA PROZESUA (EXISTITZEA ETA GERTATZEA; INTEGRITATEA; BALIOESPENA; AURKEZPENA, BANAKAPENA ETA ALDERAGARRITASUNA; ETA ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK).

AURREKO PARAGRAFOAN ADIERAZI DEN BEZALA, IFBKS-AREN DISEINUAN SARTUTAKO ARRISKU MOTA GUZTIAK ANTZEMATEKO JARRAITU BEHARREKO IRIZPIDEAK KUANTITATIBOAK ETA KUALITATIBOAK DIRA. GAINERA, ARGITARATUTAKO INFORMAZIO FINANTZARIOAREN ERRORE ETA IRUZUR ARRISKUAK ERE AINTZAT HARTZEN DIRA.

AREA MATERIALAK ETA PROZESU NABARMENAK ANTZEMATEKO PROZESUA GUTXIENEZ URTEAN BEHIN EGITEN DA, INFORMAZIO FINANTZARIOARIK BERRIENA ERABILIZ. GAINERA, INFORMAZIO FINANTZARIOAREN BALIZKO ERROREAK AGERIAN JARTZEN DITUZTEN AURREIKUSI GABEKO ZIRKUNSTANTZIAK SORTZEN DIRENEAN EDO ARRISKU BERRIAK ANTZEMATEA ERAGIN LEZAKETEN

ERAGIKETETAN FUNTSEZKO ALDAKETAK GERTATZEN DIRENEAN ERE EGINGO DA EBALUAZIOA, ESATERAKO HONAKO ALDAKETA HAUEK. KONTOLIDAZIO PERIMETROAREN EDO NEGOZIO LERROEN ALDAKETAK EDO BESTELAKO GERTAERA NABARMENAK, BESTEAK BESTE.

- **Kontolidazio-perimetroa identifikatzeko prozesurik dagoen, kontuan hartuz, besteak beste, sozietate-egitura konplexurik, erakunde instrumentalik... edo asmo bereziko erakunderik dagoen.**

PROZEDURA BAT DAGO KONTOLIDAZIO PERIMETROA IDENTIFIKATU ETA EGUNERATZEKO, ETA ESKU HARTZE DEPARTAMENTUA DA ERANTZULEA. HIRU HILEAN BEHIN, DEPARTAMENTU HORREK SOZIETATE PARTAIDETUEN INBENTARIOA GAINBEGIRATZEN DU, ALDAKETARIK DAGOEN IKUSTEKO, ETA, HALA BADA, INFORMAZIO FINANTZARIO KONTOLIDATUA LORTZEKO SISTEMETAN SARTZEKO.

- **Prozesuak bestelako arrisku batzuen (eragiketa-arriskuak, teknologikoak, finantzarioak, legezkoak, osperei buruzkoak, ingurumenekoak...) eraginak aintzat hartzen dituen, finantzetako egoera-orriei eragiten dieten heinean.**

AURREKO PUNTUETAN AIPATU DEN BEZALA, KONTROL ESTANDARRAK ETA FINKATUTAKO METODOLOGIA DIRELA ETA, BESTE ARRISKU MOTA BATZUEN ERAGINAK ERE KONTUAN HARTZEN DIRA (MERKATU, KREDITU, ERAGIKETA, TEKNOLOGIA, FINANTZA ETA LEGE ARRISKUAK, BESTEAK BESTE), INFORMAZIO FINANTZARIOAN ERAGINA IZAN LEZAKETEN HEINEAN.

ERAGIKETA ARRISKUARI DAGOKIONEZ, CAJA LABORALEK ERAGIKETA ARRISKUA GESTIONATZEKO EREDU BAT DU. HORREN BARRUAN, ARRISKUAK (BARRUKO ETA KANPOKO IRUZUR ARRISKUAREN, ARRISKU TEKNOLOGIKOAREN, ERAGIKETA ARRISKUAREN, NEGOZIO-JARDUERAKO ARRISKUAREN ETA KALTE-ARRISKUAREN MAPA) ETA HORIEK ARINTZEKO KONTROLAK IDENTIFIKATZEN DIRA, ETA HORIEN BALORAZIO KUANTITATIBOA EGIN. EREDU HORI ERAGIKETA ARRISKUAREN BATZORDEAK GAINBEGIRATZEN DU ZUZENEAN, ETA INFORMATIKA APLIKAZIO BATEAN ETA POLITIKEN, PROZEDUREN ETA ERABILTZAILAILEEN HAINBAT ESKULIBURUTAN DAGO EUSKARRITUTA. ERAGIKETA ARRISKUAK ETA HORIEI ESLEITUTAKO KONTROLAK BALIOESTEAREN ARDURA BARNE IKUSKARITZARENA DA.

- **Entitateko zer gobernu-organok gainbegiratzen duen prozesua.**

ARRISKUAK ETA KONTROLAK ANTZEMATEKO PROZEDURA GAUZATZEKO ARDURADUNA GESTIOAREN PLANGINTZA ETA KONTROL DEPARTAMENTUA DA, FINANTZEN AREAREN MENDEKOA. PROZEDURA GAINBEGIRATZEKO ARDURA, BERRIZ, IKUSKARITZA BATZORDEAK DU, BARNE IKUSKARITZAKO DEPARTAMENTSUAREN BIDEZ.

F.3. Kontrol-jarduerak

F.3.1. Balore-merkatuetan argitaratu beharreko informazio finantzarioa, IFBKsaren deskribapena eta horien arduradunak ikuskatzeko eta onesteko prozedurak, arduradunak nor diren zehaztuta. Finantzetako egoera-orrietan ondorio materialak eragin ditzaketen transakzio mota guztien jarduera- eta kontrol-fluxuei buruzko dokumentazio deskribatzailea (iruzur-arriskuak barne hartuz). Dokumentazio horretan, gainera, kontabilitatea ixteko prozedura eta iritzi, estimazio, balioespen eta proiektzio nagusien berrikuspenak islatu behar dira.

BALORE MERKATUETAN ARGITARATU BEHARREKO INFORMAZIO FINANTZARIOA BERRIKUSI ETA BAIMENTZEKO PROZEDURAK HASTEKO, FINANTZEN AREAKO ZUZENDARITZAK BERRIKUSTEN DU. BARNE IKUSKARITZAKO DEPARTAMENTSUAK URTEKO KONTU INDIBIDUALAK ETA BATERATUAK BERRIKUSTEN DITU,

KONTSEILU ERREKTOREAK FORMULATU AURRETIK. IKUSKARITZA BATZORDEAK INFORMAZIOA IRAKURRI ETA FINANTZEN AREAKO ETA BARNE IKUSKARITZAKO ARDURADUNEKIN ETA KANPO IKUSKATZAILEEKIN EZTABAIDATZEN DU, KONTSEILU ERREKTOREARI BIDALI AURRETIK.

FINANTZETAKO EGOERA ORRIETAN ONDORIO MATERIALAK ERAGIN DITZAKETEN TRANSAKZIOEKIN ZUZENEKO LOTURA DUTEN JARDUERA ETA KONTROLAK GAUZATZEKO, ENTITATEKO MATERIALEN ESPARRUKO AREA ETA DEPARTAMENTUEK ETA INFORMAZIO FINANTZARIOAREN KONTROLERAKO ARLOKOEK BERAIEK SORTUTAKO PROZEDUREN ESKULIBURUAK ERABILTZEN DITUZTE. ESKULIBURU HORIEK KONTSEILU ERREKTOREAK ONETSI DITU.

PROZEDUREK PROZESUARI LOTUTAKO ORGANIGRAMA ETA FUNTZIOAK, TARTEAN DIREN SISTEMAK ETA PROZESUAREN DESKRIBAPENA BARNE HARTZEN DITUZTE. HORREZ GAIN, ARRISKUAREN MATRIZEEK ETA KONTROLEK HONAKO ARLO HAUEK HARTZEN DITUZTE BARNE, BESTEAK BESTE:

- ARRISKUAREN DESKRIBAPENA.
- KONTROL JARDUERA.
- KONTROLAREN SAILKAPENA: FUNTSEZKOA/ESTANDARRA.
- KONTROLAREN KATEGORIA: PREBENTIBOA/DETEKTIBOA.
- METODOA: ESKUZKOA/MISTOA/AUTOMATIKOA.
- KONTROLA EUSKARRITZEN DUEN SISTEMA.
- KONTROLAREN ERAGILEA ETA ARDURADUNA.
- KONTROLAREN MAIZTASUNA.
- KONTROLAREN EBIDENTZIA.

ONDOREN, ENTITATEAREN FINANTZA ARLOEI LOTUTAKO PROZESU ESANGURATSUAK ZEHAZTEN DIRA (ZEHARKAKO PROZESUAK ETA NEGOZIO PROZESUAK BEREIZIZ), ETA HORIETARAKO AURRETIK AIPATUTAKO DOKUMENTAZIOA DAGO.

ZEHARKAKO PROZESUAK

- KONTABILITATEA ITXIERA.
- BATERAKUNTZA.
- GESTIO FISKALA.
- KONTROL INFORMATIKO OROKORRAK.

NEGOZIO PROZESUAK

- KREDITU INBERTSIOA.
 - ONARPENA.
 - JARRAIPENA ETA BERRESKURAPENA.
- FINANTZA TRESNAK.
- HANDIZKAKO FINANTZAKETA.

- ZORRA ORDAINTEKO JASOTAKO AKTIBO HIGIEZINAK.

LEHEN AIPATUTAKO DOKUMENTAZIO DESKRIBATZAILEAK ONDORENGOAK HARTZEN DITU BARNE:

1. PROZESUAREKIN HASIERATIK LOTUTAKO JARDUEREN DESKRIBAPENA, PRODUKTU EDO ERAGIKETA JAKIN BATEK IZAN DITZAKEEN BEREZITASUNAK ADIERAZIZ.
2. ENTITATEAREN FINANTZETAKO EGOERA ORRIETAN ERAGIN MATERIALA DUTEN ARRISKU NABARMENEN IDENTIFIKAZIOA.
3. KONTROLEN IDENTIFIKAZIOA ETA DESKRIBAPENA, ETA AURRETIK ANTZEMANDAKO ARRISKUEKIN LOTZEA.

CAJA LABORALEN KONTABILITATE ITXIERAKO PROZESURA MEKANIZATUA DAGO, KONTABILITATEA AUTOMATIKOKI EGITEN DA ENTITATEAREN APLIKAZIOEN BIDEZ. LEHEN PROZESUA EGINDAKOAN, ESKU HARTZE DEPARTAMENTUAK INFORMAZIOA BERRIKUSI ETA AURREKO HILEKO DATUEKIN ZEIN AURREIKUSITAKO ZIFREKIN ALDERATZEN DU, HILEKO BALANTZE ITXIERA ETA EMAITZA KONTUA BALIDATZEKO.

FILIALEN KONTABILITATE ITXIERA DAGOKIEN ENTITATEAK EGITEN DU, ETA, HIGIEZINEN SUSTAPENEN SOZIALIZATE BATZUEN KASUAN, KONTRATATURIKO HIRUGARREN BATEK, FILIALEN INFORMAZIOA JASOTAKOAN, CAJA LABORALEKO ESKU HARTZE DEPARTAMENTUAK BERRIKUSI EGITEN DU, BATERAKUNTZA PROZESUA EGITEKO.

IRITZI ETA ESTIMAZIOK GARRANTZITSUENEN BERRIKUSPENEI DAGOKIENEZ, ENTITATEAK IRITZIAK EDO ESTIMAZIOAK EGITEKO AUKERA EMATEN DUTEN ARLO NAGUSIEN NONDIK NORAKOAK ISLATZEN DITU URTEKO KONTUETAN, ETA, HALABER, HORIEN GUZTIEN INGURUAN AURREIKUSITAKO FUNTSEZKO HIPOTESIAK ERE ZEHAZTEN DITU. ESTIMAZIOK GARRANTZITSUENEN OINARRIAK HONAKO HAUEK IZAN OHI DIRA: FINANTZA AKTIBO JAKIN BATZUEN NARRIADURAREN ONDORIOZKO GALERAK, PASIBOEI ETA PENSIO KONPROMISOEI BURUZKO KALKULU AKTUARIALAK, AKTIBO MATERIALEN ETA UKIEZINEN BALIO BIZITZA, MERKATARITZA FONDOEN BALORAZIOA, KOTIZATU GABEKO FINANTZA AKTIBOEN ARRAZOIZKO BALIOA ETA AKTIBO HIGIEZINEN ARRAZOIZKO BALIOA. HORREZ GAIN, CAJA LABORALEK IRITZI ETA ESTIMAZIOAK EGITEKO POLITIKA OROKORRA EZARRI DU 2014AN, IFBKS-A FINKATZEKO PROZESUAREN BARRUAN. AINTZAT HARTU BEHARREKO ALDERDI GUZTIAK ETA IRITZI ETA ESTIMAZIOAK PRESTATU ETA BERRIKUSTEKO ERANTZUKIZUNAK ZEHAZTEN DITU POLITIKA HORREK.

F.3.2. Informazio finantzarioa osatzeko eta argitaratzeko prozesu nagusiei dagokienez, Entitateko informazio-sistemen barne-kontrolerako politikak eta jardunbideak (besteak beste, eskuratzeko segurtasuna, aldaketen kontrola eta jarduketak, jarraikortasun operatiboa eta funtzio-bereizketa).

CAJA LABORALEKO ZUZENDARITZAK, INFORMAZIOA ETA INFORMAZIOAREN OINARRIZKO AKTIBOAK BERE NEGOZIOARENTZAT ESTRATEGIKOTZAT JO DITUENEZ, ERABILGARRITASUNA, KONFIDENTZIALTASUNA, OSOTASUNA, BENETAKOTASUNA ETA TRAZABILITATEA ERABAT BERMATZEKO BEHARREZKOAK DIREN SEGURTASUN MAILAK LORTU NAHI DITU.

KONPROMISO HORI MAMITZEKO, BESTEAK BESTE, CAJA LABORALEKO SEGURTASUN INFORMATIKOKO BATZORDEAK ONARTUTAKO SEGURTASUN POLITIKA DU. ENTITATEKO AREA GUZTIETAN EZARTZEN DA, INFORMAZIOAREN ETA INFORMAZIOA GORDETZEKO SISTEMEN ARRISKUAK GESTIONATZEKO ETA

MAILA ONARGARRIETAN MANTENTZEKO. INFORMAZIOAREN KONFIDENTZIALTASUNA, OSOTASUNA, ESKURAGARRITASUNA, EGIATASUNA ETA TRAZABILITATEA ZAINTEA DA HELBURUA.

ENTITATEAK KONTROL INFORMATIKO OROKORREN PROZESUA DU (AURREKO 3.1 ATALA), DAGOZKION PROZEDURA, ARRISKU MATRIZE ETA KONTROLEKIN, HONAKO HAUEKIN ZERIKUSIA DUTEN ARRISKUAK ETA KONTROLAK ZEHAZTEKO: ESKURATZEKO SEGURTASUNA, ALDAKETEN KONTROLA ETA JARDUKETAK, JARRAIKORTASUN OPERATIBOA ETA FUNTZIO BEREIZKETA.

INFORMAZIOAREN GESTIOA HAREN SEGURTASUN EGOKIA LORTZEKO ARAU ETA PROZEDURA EGOKIETAN OINARRITZEN DA. CAJA LABORALEKO LANGILE GUZTIEK BETE BEHAR DUTE SEGURTASUN POLITIKA HORI, INFORMAZIOAREN SEGURTASUNAREN HARIRA, ARAU MAILA GORENA DU ETA. HAREN EDUKIA BERARIAZ DEFINITZEN DA ALDERDI HAUEN BIDEZ, BESTEAK BESTE:

- AKTIBOEN GESTIOA.
- SEGURTASUN FISIKOA ETA INGURUMENEOA.
- KOMUNIKAZIO ETA ERAGIKETEN GESTIOA (SEGURTASUN KOPIAK).
- SARBIDEAREN KONTROLA.
- INFORMAZIO SISTEMAK ESKURATU, GARATU ETA MANTENTZEA.
- ENTITATEAREN JARRAITUTASUNAREN GESTIOA.

ERA BEREAN, ENTITATEAK DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO LEGE ORGANIKOAK (DPBLO) EZARRITAKO BETEBEHARRAK ETA LEGEA GARATU ZUEN ERREGE DEKRETUAK XEDATUTAKO NEURRIAK HARTU ETA BETEKO DITUELA ERE EZARTZEN DU. DPBLO-ARI BURUZKO SEGURTASUN DOKUMENTUAREN 6. ERANSKINEAN, HAIN ZUZEN, DATU PERTSONALAK ETA INFORMAZIO SISTEMAK ESKURAGARRI DITUZTEN ERABILTZAILIEN FUNTZIOAK ETA BETEBEHARRAK ZEHAZTU ETA DOKUMENTATZEN DIRA.

SEGURTASUN POLITIKA INFORMAZIOAREN ETA INFORMAZIOA PROZESATZEKO SISTEMEN BIZI ZIKLOAREN URRATS GUZTIETAN EZARRI ETA BETEKO DA.

ERA OSAGARRIAN, IKS-AREN (INGURUMENA KUDEATZEKO SISTEMA) 54.01-01 IMA JARRAIBIDEAN, INFORMAZIOA ZAINTEKO EZARRITAKO SEGURTASUN NEURRIAK ZEHAZTEN DIRA, HALA FUJITSU INGURUNEAN NOLA 'INGURUNE IREKIA' DELAKOAREN ZERBITZARIETAN (SQL, TD, SAP, MEDTRA, ETAB.).

GAINERA, ENTITATEAK PROZESU ETA ARRISKU INFORMATIKOEN IKUSKARITZAKO SEKZIOA ERE BADU. HAREN ZEREGIN NAGUSIA INFORMAZIOAREN GAINEKO KONTROLEN ERAGINKORTASUNA IKUSKATZEA DA: OSOTASUN MAILA EGOKIAK IZATEA, KONFIDENTZIALTASUNA, ESKURAGARRITASUNA ETA ARAUDIA BETETZEA. 2015EKO URTARRILEAN SEGURTASUN IKUSKARITZA (WEBGUNERAKO ETA BANKA ELEKTRONIKORAKO HACKING ETIKOA) EGIN ZUEN KANPOKO ADITU BATEK.

BESTE ALDE BATETIK SEGURTASUN AGIRIAREN 12. ERANSKINEAN ('BABES ETA BERRESKURAPEN KOPIAK'), CAJA LABORALEN SISTEMETAN GORDETAKO DATUAK BABESTU ETA BERRESKURATZEKO PROZEDUREN INGURUKO JARDUERAK AZALTZEN DIRA.

AZKENIK, ENTITATEAK EZ DU DPZ-A (DATUEN PROZESU ZENTROA) ALDATU 2014AN ZEHAR. IZAN ERE, LK2 ERAIKINEKO ZERBITZARIEN GELAN MANTENTZE

LANAK EGIN DIRA. HORTAZ, EZINEZKOA IZAN DA KONTINGENTZIA PLANA EGIAZTATZEA (ALDAKETA 2015EKO BIGARREN HIRUHILEKOAN EGITEA AURREIKUSITA DAGO).

F.3.3. Hirugarrenei azpikontrataturako jardueren gestioa gainbegiratzea helburu duten barne-kontrolako politikak eta prozedurak. Kanpo-adituen esku utzitako ebaluazio, kalkulu edo balioespenei dagokienez, finantzetako egoera-orrietan edonolako eragin materiala izan dezaketen alderdiak.

ENTITATEAK HIRUGARRENEK GAUZATUTAKO JARDUERA JAKIN BATZUK ALDIZKA BERRIKUSTEN DITU: FINANTZA DATUAK OSATZEKO PROZESUAN GARRANTZIA IZAN DEZAKETENAK EDO DATUEN FIDAGARRITASUNA ZEHARKA KOLOKAN JAR DEZAKETENAK, ALEGIA. ORAIN ARTE ENTITATEAK EZ DU KANPORA ATERA INFORMAZIO FINANTZARIOAN ERAGIN NABARMENA DUEN PROZESURIK. ENTITATEAK ADITU INDEPENDENTEEN TXOSTENETARA JOTZEN DU ETENGABE, FINANTZETAKO EGOERA ORRIETAN ERAGIN MATERIALA IZAN DEZAKETEN JARDUNBIDEEN BALIOESPENAK EZAGUTZEKO.

2014KO EKITALDIAN, ADITU INDEPENDENTEEN BALORAZIO ETA KALKULUEI LOTUTA, HIRUGARRENEI AGINDUTAKO ZEREGIN NAGUSIA ZERA IZAN ZEN: ESLEITUTAKO HIGIEZINEN TASAZIOEN INGURUKOA ETA ENTITATEKO KREDITUKO ZORROAN ERAGIKETEN BERMETZAT ERABILTZEN DIREN HIGIEZINEN INGURUKOA, ESPAINIAKO BANKUAREN 4/2004 ZIRKULARRAK AGINDUTAKOARI LOTUTA.

ENTITATEAK KONTROLAK DITU EZARRITA MAILA GUZTIETAN, TASAZIO SOZIEATEEK EGINDAKO LANARI LOTUTAKO ARRISKUAK MURRIZTEKO. KONTROLAK JARDUERA HORIEZ ARDURATZEN DIREN DEPARTAMENTU ETA ORGANOETAN EGITEN DIRA, EUREN GAITASUNA, TREBAKUNTZA, AHALMENA EDO INDEPENDENTZIA EGIAZTATZEKO, BATETIK, ETA ERABILITAKO DATU ETA METODOEN BALIAGARRITASUNA ETA HIPOTESIEN ZUZENTASUNA FROGATZEKO, BESTETIK. ERA BEREAN, BARNE IKUSKARITZAKO DEPARTAMENTUAREN LAGUNTZA ERE JASOTZEN DUTE EZARRITAKO PROZEDUREN ERAGINKORTASUNA EGIAZTATZEKO.

F.4. Informazioa eta komunikazioa

F.4.1. Batetik, kontabilitate-politikak finkatzeko, eguneratzeko eta interpretazioen inguruan sortutako zalantzak edo auziak bideratzeko funtzioa (kontabilitate-politiken area edo departamentua), antolakundeko eragiketa-arduradunekiko etengabeko harremanen bidez gauzatu beharrekoa. Bestetik, kontabilitate-politiken eskuliburu eguneratua, Entitateari atxikitako unitate guztiek eskuragarri izango dutena.

KONTUHARTZAILE DEPARTAMENTUAK ENTITATEKO ETA SOZIEATE FILIALETAKO KONTABILITATE POLITIKAK IDENTIFIKATZEN, FINKATZEN ETA JAKINARAZTEN DITU, ETA SOZIEATE FILIALEK ETA ENTITATEAREN NEGOZIO UNITATEEK KONTABILITATE GAIEZ EGITEN DIZKIOTEN GALDEREI ERANTZUTEN DIE.

ENTITATEAREN KONTABILITATE ESKULIBURUAK INFORMAZIO FINANTZARIOA PRESTATZEKO MODUEI BURUZKO ARAUAK ZEHAZTU ETA ARGITZEN DITU, ETA ARAU HORIEK ENTITATEKO ERAGIKETETAN NOLA ERABILI BEHAR DIREN ARGITZEN DU: ADIBIDEZ, SOZIEATEKO FILIALENTZAKO KONTOLIDATZE PAKETEAK. DOKUMENTU HORIETAN, TRANSAKZIO MOTA BAKOITZAREN ARAUAK ZEHAZT-MEHATZ AIPATZEAZ GAIN, INTERPRETAZIO ZUZENA EMAN ETA ARGITZEN DUTE, EGOKI BETE DAITEZEN.

HIZPIDE DITUGUN DOKUMENTUAK ALDIAN-ALDIAN EGUNERATZEN DIRA, ETA ALDAKETA EDO EGUNERATZE GARRANTZITSU GUZTIAK DAGOZKIEN SOZIETATEEI JAKINARAZTEN ZAIZKIE.

KONTSOLIDATZE PAKETEA TALDEKO SOZIETATE FILIAL BAKOITZAK EGIN ETA ESKU HARTZE DEPARTAMENTUAK GAINBEGIRATZEN DITU, EKONOMIA TALDEKO SOZIETATEEK KONTABILITATE ERREGISTROEN JARRAIBIDEEKIN ETA ENTITATE MATRIZEAK EZARRITAKO KONTABILITATE POLITIKEKIN BAT DATOZELA ZIURTATZEKO. DEPARTAMENTUAK, FILIALEN INFORMAZIOA AZTERTU ETA BERRIKUSI ONDOREN, EGOKI DERITZEN ZUZENKETAK EGITEN DITU.

INFORMAZIO FINANTZARIOAREN INGURUKO ARAUETAN FINANTZETAKO EGOERA ORRIETAN ERAGIN DEZAKEEN EDOZEIN ALDAKETA INDARREAN JARTZEN DENEAN, ESKU HARTZE DEPARTAMENTUAK KONTABILITATE ARAUAK BERRIKUSI, AZTERTU ETA EGUNERATZEN DITU, ETA KASUAN KASUKO ALDAKETAK EDO EGUNERAPENAK JAKINARAZTEN DIZKIE ENTITATEKO NEGOZIO UNITATEEI ETA FILIALEI.

TALDEARENTZAT APLIKAGARRI DIREN KONTABILITATE POLITIKAK ZEHAZTEN DITUEN KONTABILITATEKO ARAU ESPARRUARI ESKER, FINANTZETAKO EGOERA ORRIEK ONDAREAREN ETA FINANTZA EGOERAREN IRUDI ZEHATZA ERAKUSTEN DUTE. ARAU HAUEK DIRA: (I) EUROPAR BATASUNAK FINKATURIKO INFORMAZIO FINANTZARIOARI BURUZKO NAZIOARTEKO ARAUAK, ETA (II) ESPAINIAKO BANKUAREN 4/2004 ZIRKULARRA.

F.4.2. Finantzetako egoera-orri nagusiei, oharrei eta IFBKsari buruzko informazio finantzarioa formatu homogeenen bidez eskuratzeko eta prestatzeko mekanismoak, Entitateko edo Taldeko unitate guztiek ezar eta erabil dezaten.

INFORMAZIO FINANTZARIOA EGIAZTATZEKO DATUAK OSOAK, ZEHATZAK ETA EGOKIAK DIRELA ETA HORIEK DAGOKIEN UNEAN ETA MODUAN JAKINARAZTEN DIRELA BERMATZEKO KONTROL NEURRIAK DAUDE. INFORMAZIO FINANTZARIOA KONTSOLIDATU ETA PRESTATZEKO PROZESUA ZENTRALIZATUTA DAGO, ENTITATEAK EGITEN BAITU.

PROZESUAN ZEHAR, SOZIETATE FILIALEK JAKINARAZITAKO FINANTZETAKO EGOERA ORRIEI BURUZKO KONTSOLIDATZE PAKETEA "INPUT" GISA SARTZEN DIRA, EZARRITAKO JARRAIBIDEEKIN ETA FORMATUEN ARABERA, ETA ESKATUTAKO GAINERAKO INFORMAZIO FINANTZARIOAREKIN BESTE HORRENBESTE EGITEN DA, BAI KONTABILITATEA HARMONIZATZEKO BAI INFORMAZIO BEHARREI ERANTZUTEKO. SOZIETATE FILIALEK EMANDAKO INFORMAZIO FINANTZARIOA ESKU HARTZE DEPARTAMENTUAK BERRIKUSTEN DU.

ENTITATEAK ZENBAIT KONTROL DITU EZARRITA, SOZIETATE FILIALEK ETA NEGOZIO UNITATEEK HELARAZITAKO INFORMAZIO FINANTZARIOAREN FIDAGARRITASUNA ETA ERABILERA ZUZENA BERMATZEKO. HORRELA, BESTEAK BESTE, KONTSOLIDATZE IDAZPENEN ZUZENTASUNA ETA EMAITZEN ETA AURREKONTUEN ARTEKO ALDEAK GAINBEGIRATU ETA ESPAINIAKO BANKUAK FINKATUTAKO EGOERA KONTROLAK EGITEN DITU, BALANTZEKO PARTIDAK ETA EMAITZA KONTUAK KONPARATZEKO.

F.5. Sistemaren funtzionamendua gainbegiratzea

F.5.1. Ikuskaritza Batzordeak IFBKsa gainbegiratzeko gauzatu dituen jardueren berri emateaz gain, Entitateak barne-ikuskaritzako funtziorik egiten duen adieraziko da. Horietako funtzioetako bat barne-kontrolako sistema (IFBKsa barne) gainbegiratzen ari den batzordeari

laguntzea izango litzateke. Halaber, ekitaldiko IFBKsaren ebaluazioaren, eta ebaluazioaren arduradunak emaitzak jakinarazteko erabilitako prozeduraren berri ere emango da. Azkenik, Entitateak kasuan kasuko neurri zuzentzaileei buruzko ekintza-planik ba al duen eta informazio finantzarioan izango duen eragina kontuan hartu duen zehaztuko da.

BARNE IKUSKARITZAKO ZERBITZUA GAINBEGIRATZEAZ GAIN, IKUSKARITZA BATZORDEAREN ZEREGINETAKO BAT DA INFORMAZIO FINANTZARIOA LANDU ETA AURKEZTEKO PROZESUA ETA SOZIALTEAREN BARNE KONTROLEKO SISTEMAK GAINBEGIRATZEA. JARDUERA HORIEK BARNE IKUSKARITZAKO DEPARTAMENTUAN ESKUORDETZEN DITU.

BARNE IKUSKARITZAKO DEPARTAMENTUAK LAU FUNTZIO DITU: FINANTZA UNITATEEN IKUSKARITZA, BEZEROAK GESTIONATZEKO UNITATEEN IKUSKARITZA, URRUNEKO IKUSKARITZA ETA INFORMATIKA IKUSKARITZA. INFORMAZIO FINANTZARIOAREN FIDAGARRITASUNA BERMATZEKO, PROZEDURA ETA GESTIO JARDUKETEN ERAGINKORTASUNA ZIURTATZEKO, BARNE ETA KANPO ARAU APLIKAGARRIAK BETETZEKO ETA ENTITATEAREN ONDAREA BABESTEKO BEHARREZKOAK DIREN BARNE KONTROLEKO NEURRIAK EZARTZEA DA DEPARTAMENTU HORREN ZEREGIN NAGUSIA.

BESTALDE, ENTITATEAREN KODE ETIKOAREN ETA JOKABIDE KODEAREN ARABERA, MERKATURA HELARAZITAKO INFORMAZIO FINANTZARIOAREN FIDAGARRITASUNA UNEORO BERMATZEKO BEHARREZKOAK DIREN KONTROL PROZEDURA ERAGINKORRAK DISEINATZEA ETA EZARTZEA ERE ZUZENDARITZA BATZORDEAREN ETA BARNE IKUSKARITZAKO DEPARTAMENTUAREN ARDURA DA.

BARNE IKUSKARITZAK, HORRETARAKO, AURREIKUSITAKO IKUSKAPENAK GAUZATU OHI DITU ARRISKUAK KONTROLATZEKO SISTEMAK AZTERTZEKO, BARNE JARDUKETEN PROZEDURAK BEHATZEKO ETA UNEAN UNEKO KANPO ETA BARNE ARAU APLIKAGARRIAK ZENBATERAINO BETE DIREN BALIOESTEKO.

2014KO EKITALDIRAKO EGINDAKO EBALUAZIOAK IFBKs-A EZARTZEKO PROZEDURA FORMALA HARTU DU BARNE. GESTIOAREN PLANGINTZA ETA KONTROL DEPARTAMENTUAK EGIN DU. 2015ETIK AURRERA, IFBKs-A ERABAT FINKATURIK DAGOENEAN, BARNE IKUSKARITZAKO DEPARTAMENTUAK BERE URTEKO JARDUKETA PLANAREN BARRUAN TALDEARENTZAT GARRANTZITSUAK DIREN PROZESUEN BERRIKUSPENAK EGINGO DITU. ALEGIA PROZESU GUZTIAK BERRIKUSIKO DITU HIRU URTEAN BEHIN. SALBUESPENAK IZANGO DIRA GARRANTZI BEREZIA EMATEN ZAIEN AREA EDO PROZESU JAKIN BATZUK, HALA NOLA KONTABILITATE ITXIERA EGITEKO PROZEDURA, IRITZI ETA ESTIMAZIOEN BERRIKUSPENA EDO INFORMAZIO SISTEMEN GAINEKO KONTROL OROKORRAK. AZKEN HORIEN EBALUAZIOA URTERO EGITEN DA.

F.5.2. Ba al dagoen goi-zuzendaritzari, Ikuskaritza Batzordeari edo entitateko administratzaileei informazioa emateko elkarrizketa-prozedurarik, baldin eta kontu-ikuskatzaileak (Ikuskaritzako Arau Teknikoetan xedatutakoarekin bat), barne-ikuskaritzako eginkizunak edo beste adituren batek, urteko kontuan gainbegiratzean edo agindutako beste zereginen bat egiterakoan, barne-kontroleko ahultasun garrantzitsuak ikusten baditu. Era berean, atzemandako ahultasunak zuzentzeko edo indartzeko ekintza-planik badagoen jakinaraziko da.

IKUSKARITZA BATZORDEA BIRBITAN BILTZEN DA EKITALDI BAKOITZEAN KANPO IKUSKATZAILEAREKIN.

- LEHENGOA, URTEKO BEHIN BEHINEKO IKUSKARITZA BISITAREN ONDORIOZKO ATARIKO LANA BUKATZEN DENEAN. BERTAN, KANPO IKUSKATZAILEAK BERE ONDORIOEN BERRI EMATEN DU.

- BIGARRENA, URTEKO KONTUEN FORMULAZIOARI EKIN BAINO LEHEN. BERTAN, KANPO IKUSKATZAILEAK BERE LANAREN BEHIN BETIKO ONDORIOAK EZAGUTARAZTEN DITU.

KONTU IKUSKATZAILEAK GOI ZUZENDARITZAREKIN ETA BARNE IKUSKARITZAKO ZUZENDARITZAREKIN ZUZENEKO HARREMANAK IZAN ETA ALDIZKAKO BILERAK EGITEN DITU, BERE LANERAKO BEHAR DUEN INFORMAZIOA LORTZEKO ETA AURKITUTAKO AHULTASUNEZ MINTZATZEKO.

KANPO IKUSKATZAILEAK BARNE KONTROLAZ EGINDAKO IRADOKIZUN ETA GOMENDIOEN MEMORANDUMA, LEHENBIZI, IKUSKARITZA BATZORDEARI AURKEZTEN ZAIO, ETA, GERO, ENTITATEAREN KONTSEILU ERREKTOREARI, ONAR DEZAN. AZKEN DOKUMENTU HORRETAN, ZUZENDARITZA NAGUSIAK GOMENDIO BAKOITZARI BURUZ EGINDAKO IRUZKINAK ETA, HALA DAGOKIONEAN, AHULTASUNAK ZUZENTZEKO EKINTZA PLANAK EDO NEURRIAK JASOTZEN DIRA.

AZKENIK, KANPOKO IKUSKATZAILEAK EMANDAKO GOMENDIOEN GARRANTZIAREN ARABERA, BARNE IKUSKARITZAKO URTEKO PLANAK EZARRITAKO NEURRIEN JARRAIPENA EGITEA ERE AURREIKUSTEN DU.

BARNE IKUSKARITZAK EGINDAKO LANEN EMAITZARI DAGOKIONEZ, DEPARTAMENTUKO ZUZENDARIAK IKUSKATUTAKO ZENTROKO ARDURADUNEI ETA ZUZENDARITZA NAGUSIEI AURKEZTEN DIZKIE EMANDAKO TXOSTENAK. GAINERA, TXOSTENETAN PROPOSATUTAKO GOMENDIOEN EZARPEN MAILAREN JARRAIPENA EGITEN DU.

BARNE IKUSKARITZA DEPARTAMENTUKO ZUZENDARITZAREN DEIA JASO ONDOREN, IKUSKARITZA BATZORDEA GUTXIENEZ URTEAN BI ALDIZ BILTZEN DA BERE ERANTZUKIZUNETAKO BAT BETETZEKO, ALEGIA, ZUZENDARITZAREN LAN NAGUSIEI BURUZKO XEHETASUNAK EZAGUTZEKO.

F.6. Bestelako informazio garrantzitsua

F.7. Kanpo-ikuskatzailearen txostena

F.7.1. Merkatuetara helarazitako IFBKSaren informazioa kanpo-ikuskatzaileak gainbegiratzen al duen. Hala bada, Entitateak haren txostena Eranskin gisa aurkeztuko du. Bestela, arrazioen berri eman beharko du.

GAUR EGUN, ENTITATEA IFBKS-AREN ALDERDI JAKIN BATZUK EZARTZEKO PLANA ARI DA GAUZATZEN, ETA, AURREIKUSPENEN ARABERA, 2015EKO LEHEN HIRUHILEKOAN ZEHAR EMANGO ZAIO BUKAERA. HORREGATIK, KANPO IKUSKATZAILEAK EZ DU IFBKS-A AZTERTZERIK IZAN.

MERKATUETARA HELARAZITAKO IFBKS-AREN INFORMAZIOA HURRENGO EKITALDI BATZUETAN KANPO IKUSKATZAILEAK AZTERTZEA KOMENI DEN ALA EZ BALIOETSIKO DU ENTITATEAK.

G BESTE INFORMAZIO INTERESGARRI BATZUK

Zure erakundeak aplikatzen dituen gobernu korporatiboko jardunbideei dagokienez txosten honetan aztertu ez den printzipio edo gai garrantzitsuren bat dagoela uste baduzu, aipatu eta azal ezazu horren edukia.

Atal honen barruan beste edozein informazio, azalpen edo xehetasun jaso ahal izango da, txostenaren aurreko atalen inguruan, baldin eta garrantzitsua bada eta ez bada errepikatzen.

Hain zuzen, esan ezazu gobernu korporatiboaren alorrean erakundea Espainiakoa ez den beste legeria baten menpe dagoen, eta, hala baldin bada, adieraz ezazu ematera behartuta zauden informazio guztia, txosten honetan eskatutakotik aparte.

JARRAIAN AURKEZTEN DEN INFORMAZIOAK A. JABETZAREN EGITURA ATALA OSATZEN DU:

CAJA LABORALEKO BAZKIDE DIREN KOOPERATIBA ETA HORIEN MERKATARITZA SOZIJETATE GEHIENAK MONDRAGÓN CORPORACIÓN COOPERATIVAREN PARTE ERE BADIRA. CAJA LABORAL ERE PARTAIDE DUEN KORPORAZIOA ASKATASUNEZ ELKARTUTAKO KOOPERATIBEN ELKARTEA DA. KOOPERATIBOK LANKIDETZA BALIOAK PARTEKATZEN DITUZTE ETA ENPRESA ALORREAN ELKARREKIN JARDUNEZ LEHIA ABANTAILAK LORTZEKO HELBURUA DUTE.

CAJA LABORALEK AURREKO EKITALDIKO ZERGA AURREKO SOBERAKINEN % 20 EMATEN DIE URTERO MONDRAGON INVERSIONES S.COOP.i ETA MONDRAGÓN FUNDAZIOARI (KORPORAZIOKO PARTAIDE DIREN EDO BERTAN ELKARTUTA DAUDEN KOOPERATIBEK OSATZEN DITUZTEN ERAKUNDEEK OSATUTA DAGO), KAPITALAREN INTERESAK ETA MONDRAGON CORPORACIÓN COOPERATIVAREN KOOPERATIBA ARTEKO FONDO ZENTRALERA EGINDAKO EKARPENARI DAGOZKION DIRULAGUNTZAK KENDUTA.EKARPEN HORIEK IRIZPIDE HONEN ARABERA EGITEN DIRA:

A) DIRULAGUNTZA GISA, URTERO SOBERAKIN GARBIEN % 14aren PAREKO ZENBATEKOA EMATEN DA, KOOPERATIBA ARTEKO FONDO SOZIALETIK KENDUTA.

B) GAINERAKO ZENBATEKOA, EFZrako EKARPENA KALKULATZEKO OINARRIAREN % 20raino, KORPORAZIOAN SARTUTAKO ERAKUNDEEN KAPITALERAKO EKARPENETAN EDO MAILEGUETAN GAUZATZEN DA. CAJA LABORALEK KAUDIMENGABEZIAK HORNITZEKO IZANEZ GERO, HORNIDURA HORI EGIN BEHARRA SORTZEN DEN EKITALDIKO DIRULAGUNTZATIK KENDUKO DA.

Gobernu korporatiboaren urteko txosten hau erakundeko Administrazio Batzordeak edo Organoak onetsi du 2015-02-27an egindako bilkuran.

Adierazi administrazio-organoko zein kide edo kontseilarik eman duen txosten hau onestearen aurkako botoa eta zein abstenitu den.